



2025

GAZTEAK, SARE SOZIALAK ETA INFORMAZIOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Gazteak, sare sozialak eta informazioa 2025



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2025

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia: 1.a, 2025eko azaroa

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea:

Gazteen Euskal Behatokia

Itzulpena:

Gazteen Euskal Behatokia

Diseinua eta maketazioa:

Gazteen Euskal Behatokia

Azala:

Gurenet Teknologia S.L.

ISBN: 978-84-457-3850-4

Oharra: Argitalpen honen gaztelaniako bertsioa ere eskuragarri dago



Dokumentu honen edukiak, oraingo edizioan, lizentzia honetan argitaratu dira: Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabeko 4.0 Unported (http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES)

Aurkibidea

SARRERA	6
METODOLOGIA	7
1. SARE SOZIALEN ERABILERA.....	8
1.1. Sare sozialen erabileraren bilakaera	8
1.2. Sare sozial ezberdinen erabilera-maiztasuna	9
1.3. Sare sozial gogokoena	15
1.4. Pribatutasunaren babesa sare sozialetan.....	18
1.5. Youtuber, influencer edo gamerren jarraipena	20
1.6. Gazteei sare sozialetan gehien interesatzen zaizkien eduki-motak	21
1.7. Edukien sorkuntza	24
1.8. Sare sozialetan erabiltzen diren hizkuntzak.....	27
2. KEZKAK ETA ESPERIENTZIA NEGATIBOAK SARE SOZIALETAN.....	32
2.1. Interneten eta/edo sare sozialen erabileraren inguruko kezak	32
2.2. Ziberjazarpena. Bizipena eta motak	35
2.3. Beste esperientzia negatibo batzuen bizipena Interneten eta/edo sare sozialetan	38
2.4. Sare sozialetan irainak edo umiliazioak ikusi dituzten gazteak	42
3. GAURKOTASUNeko INFORMAZIOA, GEZURRAK ETA HAINBAT MOTATAKO EDUKIAK IKUSTEA SARE SOZIALETAN	45
3.1. Gaurkotasunari buruzko albisteen informazio-iturriak	45
3.2. Albiste faltsuen edo <i>fake newsen</i> eraginpean egotea	51
3.3. Sare sozialetan eduki polemikoen eraginpean egotea edo eskuratzea	55
3.4. Gaurkotasuneko gaiei buruzko iritziak eta gai horiei buruzko eduki eztabaidagarrien eraginpean egotearekin duten lotura	62
3.4.1. Genero-berdintasuna eta LGTBIQ+ kolektiboa	63
3.4.2. Immigrazioa	66
3.4.3. Demokrazia	69
3.4.4. Klima-aldaketa	70
3.4.5. Biztanleria kontrolatzeko konspirazioak	72
4. INTERNETEN BESTE ERABILERA BATZUK	74
5. SARE SOZIALEN ERABILERAREN ONDORIOEI BURUZKO IRITZIAK.....	78
EMAITZA NABARMENENAK	86

SARRERA

Sare sozialen erabilera orokortua dago gaur egungo gizartean, baina garrantzi eta oihartzun berezia du gazteen artean. Sare sozialak gazteentzat baliagarriak dira harremanak izateko, informatzeko, entretenitzeko, ikasteko, lana bilatzeko, lagunak egiteko, ligatzeko, etab.

Txosten honetan, Gazteen Euskal Behatokiak Euskadiko gazteen sare sozial ezberdinen erabilera-maiztasuna aztertzeaz gain, honako hauek ere aztertu nahi izan ditu: gazteei gehien interesatzen zaizkien eduki-motak, zenbat gaztek sortzen duten edukia eta zein motatakoa, zer hizkuntzak erabiltzen dituzten sare sozialetan, zer iritzi duten sare sozialen erabilerari buruz, zerk kezkatzen dituen gehien sare sozialen erabilera problematikoei buruz, zer egoera desatsegin bizi izan dituzten sare sozialetan, ziberjazarpenari bere aldaera desberdinetan arreta berezia eskainiz, zer sare sozial erabiltzen dituzten informatzeko, zein neurritan dauden albiste faltsuen edo *fake newsen* eta eduki alderdikoen eraginpean, zer eragin duten kontsumitzen diren edukiek gaurkotasunari buruzko iritzietan, eta bukatzeko, Interneten erabilera berrien orokortzea.

Gazteen Euskal Behatokiak Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean 2025ean burutu dituen bi inkestetan oinarritzen da txostena.

Kasu batzuetan aurreko urteetako datuak ere badaude, azken urteetan gertatu den bilakaeraren berri ematea ahalbidetzen dutenak.

Datuak, gainera, sexuaren eta adin-taldearen arabera bereizita aurkezten dira, eta, horri esker, emakume eta gizon gazteen arteko aldeak eta adin desberdinetako pertsonen artekoak azter daitezke. Kasu batzuetan, emaitzak hobeto interpretatzen laguntzeko, beste aldagai batzuen arabera bereizita ere agertzen dira, hala nola jaiolekua, bizilekua edo sare sozialetan zein eduki-motaren eraginpean egon diren.

METODOLOGIA

Gazteen Euskal Behatokiak 2025ean 15 eta 29 urte bitarteko gazteei zuzendutako bi inkesten emaitzetan oinarritzen da txostena.

Bi inkestek, lehen fase batean *online* norberak betetzearen metodologia eta bigarren fase batean kuotak osatzeko telefono bidezko elkarrizketak uztartu zituzten.

Lehen inkesta martxoaren 18tik apirilaren 7ra bitarte burutu zen. Bertan 2.500 gaztek hartu zuten parte. Bigarren inkesta maiatzaren 15etik ekainaren 10era bitarte gauzatu zen. Bigarren inkesta honetan 2.149 gaztek hartu zuten parte.

Bildutako datuak haztatu egin dira Euskadiko gazteen banaketara egokitzeko, sexuaren, adin-taldearen eta bizi diren lurralde historikoaren arabera, Eustatek (Euskal Estatistika Erakundeak) argitaratzen dituen biztanleria-datuetan oinarrituta.

Lagin-errorea $\pm$ % 2,0koa da lagin osorako, % 95,5eko konfiantza-mailarekin eta lagina guztiz ausazkoa izatearen hipotesi teorikoa oinarri hartuta ($p = q = 0,5$).

Gazteen Euskal Behatokiari dagozkio ikerketa eta galdetegiak diseinatzea, emaitzak aztertzea eta txosten hau idaztea. Landa-lana, hau da, inkestak bidaltzeko eta jasotzeko lanak, telefono bidezko elkarrizketak eta jasotako datuak gordetzea Ingartek Consulting S.L. enpresari dagozkio.

1. SARE SOZIALEN ERABILERA

Atal honetan, Euskadiko gazteen artean sare sozialen erabilera izaten ari den bilakaera ikusi ahalko dugu.

1.1. Sare sozialen erabileraren bilakaera



Hamar gaztetik zazpi hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen dituzte egunero (WhatsApp eta antzeko berehalako mezularitza aplikazioak kontuan hartu gabe).


Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko ia gazte guztiek erabiltzen dute egunero sare sozialen bat (% 98,2). Sare sozialei buruz hitz egitean, nahita baztertu ditugu berehalako mezularitzako aplikazioak, hala nola WhatsApp edo Telegram, besteak beste.

20 eta 24 urte bitarteko emakumeak dira egunero sare sozialak gehien erabiltzen dituztenak (horien % 99,8), eta 15 eta 19 urte bitarteko gizonak, berriz, eguneroko erabilera txikiena dutenak (% 95,0 hala ere). Egunero, batez beste, 3,3 sare sozial erabiltzen dituzte.

Egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen dituzten gazteen ehunekoa % 71,7koa da, 2023an erregistratutakoaren oso antzekoa (% 72,0). 25 eta 29 urte bitartekoen artean soilik hazi da, gutxi bada ere, egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen dituzten gazteen ehunekoa.

1.1. grafikoa.

Egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen dituzten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)




Egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen dituztenen bilakaera aztertzean, igoera nabarmena ikusten da 2018 eta 2022 artean, bereziki 15 eta 24 urte bitarteko gazteen artean. Hazkunde hori Z belaunaldiaren, natibo digitala, sarreraren ondorio izan daiteke, plataforma ugari aldi berean erabiltzeko joera izanik. Aldiz, 25 eta 29 urte bitartekoen taldearen erabilera —batez ere *milenalet* osatua— modu progresiboagoan hazi zen, ziurrenik belaunaldi horretako ohitura digitalak hain intentsiboak ez zirelako. Ondorengo gorakadak (2023 eta 2025) zerikusia izan lezake Z belaunaldia adin-talde horretan sartuz joatearekin, eta horrek azalduko luke sare sozialen erabileraren etengabeko hazkundera.

Bestalde, sexua eta adina konbinatzean, ikusten dugu egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzea zabalduago dagoela 20 eta 24 urte bitarteko emakumeen artean, eta ehunekorik txikiena (hala ere, gehiengo) 25 eta 29 urte bitarteko emakumeei dagokiela.

1.2. grafikoa.

2025ean egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen dituzten Euskadiko emakume eta gizon gazteen ehunekoa, adin-taldearen arabera (%)



1.2. Sare sozial ezberdinen erabilera-maiztasuna



Euskadiko gazteek gehien erabiltzen dituzten sare sozialak Spotify (edo musika entzuteko beste batzuk), Instagram, YouTube eta TikTok dira.

Spotify, Apple music edo *streaming* bidezko beste musika aplikazio batzuen eguneroko erabilerak gora egin du, eta 2025ean Euskadiko gazteek egunero gehien erabiltzen dituzten sare sozialak dira. Nahiz eta Spotify zentzu tradizionalean sare sozial bat ez izan, elementu sozialak dituelako sartu da ikerketa honetan, hala nola erabiltzaileen jarraipena (lagunak, artistak edo erreproduktzio-zerrenden sortzaileak), edukia partekatzeak aukera, beste pertsona batzuek entzuten dutena ikusteko aukera eta *playlist* kolaboratiboak egiteko aukera. Hala ere, ez du zuzeneko mezularitza, testu-, irudi- edo bideo-argitalpena edo elkarrekintza zuzena bezalako elementurik, hala nola *likeak*, atsegin duzula adierazteko, edo iruzkinak.


2025ean, Euskadiko gazteen % 78,2k egunero edo ia egunero erabiltzen dituzte Spotify, Apple music edo beste sare sozial batzuk musika entzuteko, Instagramen aurretik (% 76,8), zeina sare sozial nagusia zen duela bi urte. Halaber, erdiak baino gehiago (% 54,8) dira egunero YouTubera konektatzen diren gazteak.

TikTok eguneroko erabilera ez da iristen gehiengora (% 44,6), baina sare sozial hori edozein maiztasunekin erabiltzen duten gazte guztiak kontuan hartuz gero, ikusten dugu erdiak baino gehiago direla (% 57,1).

Inkestan sartutako gainerako sare sozialak gazteen erdiek baino gutxiagok erabiltzen dituzte egunero. Hala ere, egunero ez bada ere, erabiltzaile gazte guztiak kontuan hartzen baditugu, % 41,7k enplegua bilatzeko sare sozialak erabiltzen ditu (LinkedIn, Infojobs, etab.), % 34,2k X erabiltzen dute (lehengo Twitter), % 31,0k Pinterest, % 17,4k BeReal, % 16,7k Facebook, % 15,8k Discord, % 15,1ek Strava, % 13,1ek Twitch eta % 10,0k Reddit.

1.3. grafikoa.

2025ean, sare sozial bakoitzaren erabilera-maiztasuna 15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen artean (%)



Proposatutako gainerako sare sozialak gazteen % 10ek baino gutxiagok erabiltzen dituzte (Wattpad, Snapchat eta kontaktuen sare sozialei buruz ari gara, hala nola Tinder, Meetic, Grinder, etab.).

Ikerketa-taldeak proposatutako sare sozial horiez gain, gazteen % 3,6k adierazi du egunero beste sareren bat erabiltzen duela; horien artean, BlueSky, AskUs, Tumblr eta Goodreads dira bat-batean gehien aipatzen direnak.

Bestalde, datuen bilakaerak erakusten digu Spotify (edo musika entzuteko beste sare sozial batzuk), Instagram, YouTube, TikTok eta LinkedIn (edo enplegua bilatzeko beste sare sozial batzuk) egunero erabiltzen dituzten gazteen kopuruak 2023an erregistratutakoen antzekoak direla.

Aldiz, Facebooken erabilerak behera egiten jarraitzen du gazteen artean, kopuru oso txikietaraino; Xk ere erabiltzaile gazteen ehuneko nabarmena galdu du 2023tik 2025era, eta BeReal ez da gazteen artean finkatu, kontrakoa baizik. Snapchat eta Twitch bezalako beste sare sozial batzuek ere azken urteotan erabiltzaile gazteak galdu dituzte. Eta oso gazte gutxi dira, beste behin, harremanetarako sare sozialak egunero erabiltzen dituztela diotenak.

1.1. taula.

Proposatutako sare sozial bakoitza egunero erabiltzen duten Euskadiko 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)

Zenbatero erabiltzen dituzu honako sare sozial hauek? Egunero edo ia egunero				
(%)	2018	2022	2023	2025
Spotify, AppleMusic edo musika entzuteko beste batzuk*		72,1	74,9	78,2
Instagram	74,1	77,6	79,2	76,8
YouTube	73,7	58,7	52,2	54,8
TikTok	0,8	34,3	42,3	44,6
X (lehen Twitter zena)	17,7	30,1	30,0	20,5
LinkedIn, Infojobs, Indeed edo lana bilatzeko beste batzuk	8,6	13,6	12,3	14,3
BeReal*		4,2	22,7	10,0
Facebook	32,8	11,5	8,1	5,0
Snapchat	8,4	6,7	4,5	3,3
Twitch*		7,6	4,2	2,4
Tinder, Meetic, Grinder, Badoo edo ligatzeko beste batzuk	0,6	2,5	2,6	1,6
* Ez dago sare sozial horien erabilerari buruzko daturik 2018an. Gainera, 2023an BeReal-i buruz galdetu zen lehen aldiz (2022an berez aipatu zen).				

Alde nabarmenak daude emakume eta gizon gazteek egiten duten erabileren artean.

Emakume gazteek gizon gazteek baino neurri handiagoan erabiltzen dute egunero Instagram; izan ere, emakumeen artean Instagram dago sare sozialen eguneroko erabileraren sailkapeneko lehen postuan. Eguneroko erabilerari dagokionez beti ere, emakumeek gizonak baino gehiago erabiltzen dituzte TikTok, BeReal, Pinterest, Snapchat eta Wattpad. Aitzitik, gizon gazteek emakumeek baino gehiago erabiltzen dituzte egunero YouTube, X, Discord, Strava, Twitch, Reddit eta baita (oso gutxiengoak aipatzen badu ere) ligatzeko sare sozialak.

Adinean gora egin ahala, X, LinkedIn (edo enplegua bilatzeko beste sare sozial batzuk) eta Facebook sareen erabilerak ere gora egiten du. Hala ere, zenbat eta nagusiago orduan eta gutxiago erabiltzen dira TikTok, BeReal, Pinterest, Snapchat eta Wattpad.

1.2.(I) taula.

2025ean, proposatutako sare sozial bakoitzaren erabileraren maiztasuna 15-29 urteko Euskadiko gazteen artean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (I) (%)

Zenbatero erabiltzen dituzu honako sare sozial hauek?							
(% bertikalak)		Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
			Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Spotify, Apple music edo musika entzuteko beste batzuk	Egunero edo ia egunero	78,2	80,8	76,0	79,9	83,0	71,4
	Maiztasun gutxiagoz	12,4	11,6	13,1	10,1	10,9	16,6
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	9,1	7,3	10,8	9,7	5,9	11,9
	Ez du erantzun nahi	0,2	0,3	0,1	0,3	0,2	0,2
Instagram	Egunero edo ia egunero	76,8	81,9	72,3	74,2	79,5	76,6
	Maiztasun gutxiagoz	12,5	10,7	14,0	14,2	12,7	10,4
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	10,3	6,9	13,4	10,7	7,6	12,9
	Ez du erantzun nahi	0,4	0,5	0,3	0,9	0,2	0,1
YouTube	Egunero edo ia egunero	54,8	39,7	69,1	50,3	59,7	54,6
	Maiztasun gutxiagoz	27,3	34,1	21,1	30,5	24,0	27,4
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	17,6	25,7	9,9	18,9	16,0	18,0
	Ez du erantzun nahi	0,2	0,4	0,0	0,3	0,3	0,0
TikTok	Egunero edo ia egunero	44,6	53,6	36,7	58,8	46,0	27,9
	Maiztasun gutxiagoz	12,5	10,2	14,3	13,9	12,9	10,7
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	42,0	35,4	48,1	26,7	40,3	60,4
	Ez du erantzun nahi	0,8	0,7	0,9	0,6	0,8	0,9
X (lehen Twitter zena)	Egunero edo ia egunero	20,5	15,1	25,5	8,5	23,7	30,0
	Maiztasun gutxiagoz	13,7	12,7	14,6	13,8	16,6	10,4
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	64,4	69,8	59,4	75,1	58,9	58,7
	Ez du erantzun nahi	1,4	2,4	0,6	2,5	0,8	0,9
LinkedIn, InfoJobs, Indeed edo lana bilatzeko beste batzuk	Egunero edo ia egunero	14,3	13,2	15,3	2,5	17,6	23,5
	Maiztasun gutxiagoz	27,4	27,5	27,3	10,6	37,2	35,3
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	56,4	56,4	56,5	83,5	44,3	40,0
	Ez du erantzun nahi	1,9	2,8	0,8	3,4	0,9	1,2
BeReal	Egunero edo ia egunero	10,0	15,8	4,8	17,7	10,5	1,4
	Maiztasun gutxiagoz	7,4	9,5	5,5	11,2	8,7	2,1
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	80,2	72,1	87,6	68,0	79,0	94,6
	Ez du erantzun nahi	2,4	2,6	2,1	3,2	1,9	2,0
Pinterest	Egunero edo ia egunero	5,8	10,5	1,4	8,4	5,4	3,5
	Maiztasun gutxiagoz	25,2	39,7	11,7	26,5	26,7	22,3
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	67,4	48,5	85,0	63,7	66,2	72,5
	Ez du erantzun nahi	1,6	1,3	1,9	1,4	1,7	1,7
Facebook	Egunero edo ia egunero	5,0	5,8	4,3	0,5	3,1	11,9
	Maiztasun gutxiagoz	11,7	12,8	10,6	6,4	8,7	20,5
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	81,2	78,7	83,4	89,9	86,0	66,7
	Ez du erantzun nahi	2,1	2,7	1,7	3,2	2,2	0,9
GUZTIRA		100	100	100	100	100	100

1.2.(II) taula.

Proposatutako sare sozial bakoitzaren erabilaren maiztasuna 15-29 urteko Euskadiko gazteen artean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (II) (%)

Zenbatero erabiltzen dituzu honako sare sozial hauek?							
(% bertikalak)		Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
			Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Discord	Egunero edo ia egunero	4,7	1,8	7,2	4,2	5,5	4,5
	Maiztasun gutxiagoz	11,1	5,8	15,7	10,1	13,5	9,5
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	81,8	89,5	75,2	82,7	79,1	83,7
	Ez du erantzun nahi	2,4	3,0	1,9	3,0	1,9	2,3
Strava	Egunero edo ia egunero	4,4	3,2	5,6	4,1	3,8	5,4
	Maiztasun gutxiagoz	10,7	8,7	12,4	10,1	11,7	10,2
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	82,5	84,8	80,3	81,6	82,8	83,1
	Ez du erantzun nahi	2,4	3,2	1,7	4,2	1,8	1,3
Snapchat	Egunero edo ia egunero	3,3	5,1	1,8	6,5	2,3	1,0
	Maiztasun gutxiagoz	5,0	5,2	4,8	8,3	4,0	2,5
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	89,4	86,8	91,7	82,1	91,7	94,8
	Ez du erantzun nahi	2,3	2,9	1,7	3,1	2,0	1,8
Wattpad	Egunero edo ia egunero	2,6	3,8	1,5	3,6	2,6	1,4
	Maiztasun gutxiagoz	5,7	9,7	1,9	6,6	6,9	3,3
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	89,6	84,7	94,2	88,1	88,1	92,9
	Ez du erantzun nahi	2,1	1,8	2,4	1,6	2,3	2,4
Twitch	Egunero edo ia egunero	2,4	1,2	3,6	2,4	2,6	2,2
	Maiztasun gutxiagoz	10,7	5,6	15,4	12,4	12,9	6,7
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	84,8	90,3	79,8	82,3	83,0	89,4
	Ez du erantzun nahi	2,0	2,9	1,2	2,9	1,5	1,7
Reddit	Egunero edo ia egunero	2,2	0,7	3,5	1,0	3,2	2,5
	Maiztasun gutxiagoz	7,8	3,7	11,5	5,2	9,6	8,9
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	87,2	92,4	82,7	90,6	84,7	86,1
	Ez du erantzun nahi	2,8	3,2	2,4	3,2	2,5	2,5
Tinder, Meetic, Grinder, Badoo edo ligatzeko beste batzuk	Egunero edo ia egunero	1,6	0,3	2,9	0,6	1,7	2,7
	Maiztasun gutxiagoz	4,7	3,1	6,0	0,3	5,0	9,0
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	90,8	93,1	88,6	95,2	90,4	86,3
	Ez du erantzun nahi	2,9	3,5	2,4	3,9	2,9	1,9
GUZTIRA		100	100	100	100	100	100

Zehazkiago, adin-talde desberdinetako emakume eta gizonen sare sozialen erabilera aztertzen badugu, ondoriozta dezakegu Spotify (edo musika entzuteko beste sare sozial batzuk), Instagram, TikTok, BeReal, Pinterest, Snapchat eta Wattpad sareen eguneroko erabilera handiagoa dela emakumeen artean gizonen artean baino adin-talde konkretu guztietan.

Bestalde, YouTube, X, Discord eta enplegua bilatzeko sare sozialen eguneroko erabilera adin-talde guztietan da handiagoa gizonen artean emakumeen artean baino. Berdina gertatzen da, baina askoz zifra baxuagoetan, Reddit eta Twitchekin. Stravaren kasuan, 25 urtetik beherako gizonen adin horretako emakumeek baino gehiago erabiltzen dute egunero, baina 25 eta 29 urte bitarteko adin-taldean eguneroko erabilaren ehunekoa ia berdina da gizonen eta emakumeen artean. Izan ere, emakumeen artean sare sozial hori erabiltzen dutenen ehunekoak gora egiten

du adinak gora egin ahala, eta gizonen artean berriz, ehunekoak antzekoak dira hiru adin-taldeetan.

1.3. taula.

2025ean, proposatutako sare sozial bakoitza egunero erabiltzen duten Euskadiko emakume eta gizon gazteen ehunekoa, adin-taldean arabera (%)

Zenbatero erabiltzen dituzu honako sare sozial hauek? Egunero edo ia egunero						
(%)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Spotify, AppleMusic edo musika entzuteko beste batzuk	80,7	86,7	74,6	79,3	79,6	68,6
Instagram	78,4	85,1	82,4	70,7	74,7	71,5
YouTube	36,2	42,3	40,8	63,9	75,9	67,4
TikTok	68,0	56,7	35,0	50,7	36,7	21,3
X (lehen Twitter zena)	7,4	18,5	19,8	9,6	28,4	39,7
LinkedIn, Infojobs, Indeed edo lana biltatzeko beste batzuk	2,2	16,4	21,8	2,8	19,0	25,1
BeReal	28,7	15,9	1,9	7,5	5,6	0,9
Pinterest	15,8	9,2	6,3	1,6	1,9	0,7
Facebook	0,6	3,1	14,2	0,3	3,2	9,9
Discord	1,6	1,9	1,8	6,6	8,5	6,4
Strava	1,6	2,8	5,4	6,4	4,7	5,5
Snapchat	10,5	3,3	1,1	2,9	1,5	0,9
Wattpad	5,3	4,4	1,5	2,0	1,1	1,3
Twitch	2,1	0,4	1,0	2,8	4,6	3,4
Reddit	0,9	0,5	0,5	1,1	5,6	3,8
Tinder, Meetic, Grinder, Badoo edo ligatzeko beste batzuk	0,4	0,4	0,0	0,9	2,8	5,3

Bestalde, sare sozial bakoitza gehien erabiltzen duen kolektiboari erreparatzen badiogu, esan dezakegu 20 eta 24 urte bitarteko emakumeak direla Spotify (edo musika entzuteko beste batzuk) eta Instagram gehien erabiltzen dituztenak. 20 eta 24 urte bitarteko gizonezkoak dira YouTube gehien erabiltzen dutenak, nahiz eta horien artean ere gehien erabiltzen den sare soziala Spotify edo musikako besteren bat izan.

TikTok 15 eta 19 urte bitarteko emakumeek erabiltzen dute gehien, BeReal, Pinterest, Snapchat eta Wattpad bezala, eta adinean aurrera egin ahala, sare hauen eguneroko erabilerak behera egiten du. Aitzitik, Facebook gehien 25 eta 29 urte bitarteko emakumeek erabiltzen dute; 15 eta 19 urte bitarteko emakumeen artean, berriz, ez dira % 1era iristen egunero sare sozial hori erabiltzen dutenak.

X eta enplegua bilatzeko sare sozialak (hala nola LinkedIn, Infojobs, etab.) gehien erabiltzen dituztenak 25 eta 29 urte bitarteko gizonak dira. Adin honetako gizonak dira, halaber, Tinder, Meetic eta abar bezalako harremanetarako sare sozialak gehien erabiltzen dituztenak.

20 eta 24 urte bitarteko gizonezkoak dira Discord, Reddit eta Twitch gehien erabiltzen dituztenak. Eta, azkenik, 15 eta 19 urte bitarteko gizonek erabiltzen dute gehien Strava, nahiz eta kasu honetan aldeak txikiak diren adin-talde batetik bestera.

Jarraian, sexu eta adin talde bakoitzak gehien erabiltzen dituen 10 sare sozialen sailkapena aurkezten da.

1.4. taula.

2025ean Euskadiko emakume eta gizon gazteek egunero gehien erabiltzen dituzten 10 sare sozialen zerrenda, adin-taldeen arabera, sare horiek erabiltzen dituzten gazteen ehuneko handienetik txikienera ordenatuta

Emakumeak			Gizonak		
15-19	20-24	25-29	15-19	20-24	25-29
					
					
					
					
					
					
					
					
					
					

1.3. Sare sozial gogokoena



Sare sozial bakarrera konektatu ahal izango balira, gazteen ia erdiek Instagram aukeratuko lukete.


Gazteei galdetzean zer sare sozial aukeratuko luketen horietako batera bakarrik konektatu ahal izango balira (WhatsApp edo Telegram bezalako berehalako mezularitzako aplikazioak kontuan hartu gabe), gazteen erdiek Instagram aukeratzen dute (% 49,2k, zehazki). Beste % 14,2k YouTube aukeratuko lukete, % 9,5ek TikTok eta beste % 6,3k X. Gainerako sare sozialak gazteen % 5ek baino gutxiagok hautatu dituzte. Eta hamar gaztetik batek (% 10,5) ez daki edo ez du erantzun.

Hautu hau 2018an gazteek egindakoarekin alderatzen badugu, galdera bera egin zitzairenean, ikusten dugu Instagram dela oraindik ere gazteek gogokoen duten sare soziala. Hala ere, orduan ez bezala, Facebook aukeratuko luketen gazteen ehunekoa nabarmen jaitsi da (% 17,0tik

% 1,0ra), X ere bere aurrekoa den Twitter baino zertxobait gutxiago aukeratu dute (% 9,6tik % 6,3ra jaitsi da), eta TikTok azaldu da gazteen % 9,5en aukera gogokoan gisa. YouTube aukeratuko luketenen ehunekoa antzekoa da bi neurketetan (2018an % 14,5 eta 2025ean % 14,2).

1.4. grafikoa.

Euskadiko 15-29 urteko gazteek gogokoan dituzten sare sozialen bilakaera (%)



Emakume gazteek Instagram eta TikTok neurri handiagoan lehenesten dituzte gizonezko gazteek baino. Hauek ere Instagram aukeratuko lukete lehenik, baina bigarren aukera modura YouTube dute. X ere gehiago aukeratuko lukete gizon gazteek emakume gazteek baino.

Adinak gora egin ahala, Instagramen aipamenak gutxitu egiten dira (nahiz eta adin talde guztietan sare sozial gogokoena izan), baita TikTok ere, eta X aukeratuko luketen pertsonak ugartu egiten dira.

1.5. taula.

Euskadiko 15-29 urteko gazteek 2025ean gogokoen dituzten sare sozialak, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

Sare sozial bakar batera konektatu ahal izango bazina, eta WhatsApp edo Telegram bezalako mezularitza-aplikazioak kenduta, zein sare sozial aukeratuko zenuke?						
(% bertikalak)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Instagram	49,2	54,0	45,1	53,8	47,5	46,0
YouTube	14,2	9,2	19,0	14,2	15,4	12,9
TikTok	9,5	14,3	5,2	11,5	9,6	7,4
X (lehen Twitter zena)	6,3	3,7	8,6	1,5	7,3	10,4
Spotify, AppleMusic edo musika entzuteko beste batzuk	3,1	3,2	2,7	2,3	4,5	2,4
Pinterest	1,1	2,2	0,2	2,0	0,9	0,4
Facebook	1,0	0,9	1,1	0,2	0,4	2,6
Discord	1,0	0,2	1,6	1,1	0,9	0,8
LinkedIn, Infojobs, Indeed edo lana bilatzeko beste batzuk	0,8	0,7	1,0	0,0	0,8	1,8
Reddit	0,6	0,2	0,9	0,0	1,1	0,8
Beste sare sozial bat	2,6	2,0	3,0	1,8	3,0	3,2
Ez daki edo ez du erantzun nahi	10,5	9,5	11,7	11,5	8,6	11,4
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

Sexua eta adina gurutzatuz, aurreko erantzunak zehaztu ditzakegu.

Emakume gazteen artean, Instagram da nagusi hiru adin-taldeetan, eta, gainera, antzeko aipamen portzentajeak dituzte. TikToki buruzko aipamenak, aldiz, jaitsi egiten dira emakumeen adinak gora egin ahala.

Gizonezkoen artean, adinak gora egin ahala, behera egiten du Instagram aukeratuko luketenen ehunekoak, nahiz eta 25 eta 29 urte bitarteko gizonezkoek gehien aukeratzen duten sare soziala izaten jarraitzen duen.

Adinak gora egin ahala, X aukeratuko luketen gazteen ehunekoak ere gora egiten du, nahiz eta igoera hori askoz nabarmenagoa den gizonezkoen kasuan emakumezkoen kasuan baino.

1.6. taula.

2025ean Euskadiko emakume eta gizon gazteek gogokoan dituzten sare sozialak, adin-taldean arabera (%)

Sare sozial bakar batera konektatu ahal izango bazina, eta WhatsApp edo Telegram bezalako mezularitza-aplikazioak kenduta, zein sare sozial aukeratuko zenuke?						
(% bertikalak)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Instagram	54,6	53,8	53,5	53,3	42,1	39,2
YouTube	10,6	8,5	8,5	17,8	22,0	17,3
TikTok	17,0	14,9	10,7	6,4	4,6	4,3
X (lehen Twitter zena)	1,1	4,4	5,8	1,8	9,8	14,8
Spotify, AppleMusic edo musika entzuteko beste batzuk	1,9	4,4	3,2	2,0	4,5	1,5
Pinterest	3,6	1,9	0,8	0,5	0,0	0,0
Facebook	0,0	0,4	2,5	0,4	0,4	2,7
Discord	0,2	0,2	0,4	2,1	1,6	1,2
LinkedIn, Infojobs, Indeed edo lana bilatzeko beste batzuk	0,0	0,4	1,7	0,0	1,1	1,9
Reddit	0,0	0,4	0,2	0,0	1,8	0,9
Beste sare sozial bat	2,1	2,4	1,7	1,6	3,4	4,2
Ez daki edo ez du erantzun nahi	9,0	8,3	11,2	14,0	8,9	11,8
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

1.4. Pribatutasunaren babesa sare sozialetan




Gazte gehienek profil pribatuak dituzte sare sozialetan. Emakume gazteek gizonak baino gehiago babesten dute beren intimitatea.

Gazte gehienek diote beren sare sozialetako profilak pribatuak direla eta eduki guztiak mugatuta dituztela (% 72,7). % 19,6k adierazi du bere profilak partzialki publikoak direla, hau da, profil eta eduki batzuk irekiak eta beste batzuk ez. % 6,6k soilik adierazi dute sare sozialetako profilak publikoak direla eta edonork ikus ditzakeela. Gainerako % 1,1ek ez du erantzun.

1.5. grafikoa.

2025ean sare sozialetan dituzten profil moten arabera Euskadiko 15-29 urteko gazteen banaketa (%)



Emakumeek gizonak baino proportzio handiagoan dituzte profil pribatuak. Adinak behera egin ahala, gero eta gazte gehiagok adierazten dute sare sozialetan dituzten profil guztiak pribatuak direla.

1.7. taula.

2025ean sare sozialetan dituzten profil moten arabera Euskadiko 15-29 urteko gazteen banaketa, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

Oro har, nolakoak dira zure profilak sare sozialetan?						
(% bertikalak)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Pribatuak, zure profil eta eduki guztiak mugatuta daude	72,7	80,0	66,2	81,8	70,3	65,5
Partzialki publikoak, profil eta eduki batzuk irekiak dira eta beste batzuk ez	19,6	15,7	22,9	13,3	22,1	23,8
Erabat publikoak, edonork ikus ditzake	6,6	3,7	9,4	3,1	6,6	10,5
Ez du erantzun nahi	1,1	0,6	1,5	1,9	1,0	0,3
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

Sexua eta adina gurutzatzen baditugu, emakumeak hiru adin-taldeetan gizonak baino gehiago direla eta sare sozialetan beren pribatutasuna gehiago babesten dutela ikusiko dugu. Eta 15 eta 19 urte bitarteko emakumeak dira profil eta eduki guztiak murriztuak dituztela gehien diotenak.

Gizonen artean alde handia dago 20 urte baino gutxiago dutenen artean (beren profilak gehien babesten dituztenak) eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean. Azken talde horretan, 25 eta 29 urte

bitarteko gizonetakoetan, % 16,0k adierazi du sare sozialetako profil guztiak publikoak direla (gazte guztien batezbestekotik hamar puntu gainetik).

1.8. taula.

2025ean sare sozialetan dituzten profil moten arabera Euskadiko 15-29 urteko gazteen banaketa, adin-taldearen arabera (%)

Oro har, nolakoak dira zure profilak sare sozialetan?						
(% bertikalak)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Pribatuak, zure profil eta eduki guztiak mugatuta daude	86,1	78,6	74,9	77,5	62,9	57,4
Partzialki publikoak, profil eta eduki batzuk irekiak dira eta beste batzuk ez	10,7	16,5	20,2	15,8	27,0	26,1
Erabat publikoak, edonork ikus ditzake	2,0	4,2	4,8	4,1	8,7	16,0
Ez du erantzun nahi	1,1	0,6	0,1	2,6	1,4	0,4
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

1.5. Youtuber, influencer edo gamerren jarraipena




Hamar gaztetik seik youtuber, influencer edo gamerren bat ohikotasunez jarraitzen dute. 15 eta 19 urte bitarteko emakumeak dira influencerrei gehien jarraitzen dietenak.

Hamar gaztetik seik youtuber, influencer edo gamerren bat jarraitzen dute gaur egun. Sare sozialetan edukien sortzaileei jarraitzen dietenen ehunekoa 2023koaren ia berdina da, eta aurreko urteetako gainetik dago.

1.6. grafikoa.

Euskadiko 15-29 urteko gazteen youtuber, influencer eta gamerren segimenduaren banaketaren bilakaera (%)



Emakumeek gizonek baino gehiago jarraitzen dituzte *influencerrak*; emakumeen % 65,2k eta gizonen % 57,5ek sare sozialetan edukien sortzaileraren bat jarraitzen dute ohikotasunez.

1.9. taula.

2025ean, 15-29 urteko Euskadiko gazteen *youtuber*, *influencer* eta *gamerren* segimenduaren banaketaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

Youtuber, gamer edo influencer bati jarraitzen al diozu?						
(% bertikalak)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bai	61,1	65,2	57,5	64,8	61,6	56,4
Lehen bai, orain ez	20,0	16,9	22,6	18,6	22,9	18,4
Ez, inoiz ez	18,5	17,1	19,7	15,8	15,2	25,0
Ez du erantzun nahi	0,4	0,7	0,2	0,7	0,3	0,2
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

15 eta 19 urte bitarteko emakumeak dira *youtuber* edo *influencerrei* gehien jarraitzen dietenak. Jarraitzaileen ehunekoak behera egiten du adinarekin, bai emakumeen artean, bai gizonen artean. Hala ere, 25 eta 29 urte bitarteko gizonen artean ere, hau da, edukien sortzaileei gutxien jarraitzen dieten adin-taldean, gehiengo dira (% 52,7).

1.10. taula.

2025ean, 15-29 urteko Euskadiko gazteen *youtuber*, *influencer* eta *gamerren* segimenduaren banaketaren bilakaera, adin-taldearen arabera (%)

Youtuber, gamer edo influencer bati jarraitzen al diozu?						
(% bertikalak)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bai	68,9	65,5	60,9	61,0	58,4	52,7
Lehen bai, orain ez	16,8	18,1	15,9	20,2	27,2	20,4
Ez, inoiz ez	13,0	15,8	23,0	18,6	14,3	26,7
Ez du erantzun nahi	1,3	0,6	0,1	0,2	0,0	0,2
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

1.6. Gazteei sare sozialetan gehien interesatzen zaizkien eduki-motak



Gizon gazteei gehien interesatzen zaizkien eduki-motak kirola eta bideo-jokoak dira. Emakume gazteei estilismoarekin (moda, makillajea...), bidaiekin eta bizimoduarekin, aisiarekin eta ongizatearekin lotutakoak.


Euskadiko gazteei sare sozialetan gehien interesatzen zaizkien edukiak kirolari buruzkoak dira, eta ondoren bidaiei, umoreari, gastronomiari edo elikadurari, bizimoduari, aisiari eta ongizateari eta bideo-jokoei buruzkoak. Eduki-mota horiek gazteen % 25ek baino gehiagok aipatu dituzte.

Beharrezkoa da adieraztea gazteei, ikertzaile-taldeak proposatutako gai-zerrenda batetik abiatuta, gehien interesatzen zaizkien hiru eduki-motak hautatzeko eskatu zaiela.

Aipatutako gaien atzetik, artearekin eta kulturarekin (zinema, musika, literatura), estilismoarekin (moda, makillajea, dekorazioa...) eta albisteekin, gaurkotasunarekin eta elkarrizketekin zerikusia duten edukiak leudeke. Hiru eduki-mota horiek gazteen % 20k baino gehiagok aipatu dituzte. % 20 baino gutxiago dira eduki akademiko edo profesionalak, motorra, filosofia edo espiritualtasuna, eskulanak edo proposatutako zerrendan ez zegoen beste edozein eduki-mota aipatu dutenak.

1.7. grafikoa.

2025ean Euskadiko 15-29 urteko gazteei gehien interesatzen zaizkien eduki-motak (%)



** Portzentajeen batura 100 baino handiagoa da, pertsona bakoitzak hiru erantzun eman zitzaizkeelako, proposatutako zerrenda batetik abiatuta.*

Datu orokorrak hauek badira ere, sexuaren eta adinaren arabera alde handiak daude.

Gizonezkoei gehien interesatzen zaien eduki-mota kirola da, ondoren bideo-jokoak eta hirugarrenik umorezko edukiak. Emakumeei gehiago interesatzen zaizkie estilismoarekin (moda, makillajea...), bidaiekin eta bizimoduarekin, aisiarekin eta ongizatearekin lotutako edukiak.

Adin-talde gazteenean (15-19 urte), kirolarekin, bideo-jokoekin eta umorearekin lotutako edukiak interesatzen zaizkie gehien sare sozialetan; 20 eta 24 urte bitarteko taldean, berriz, bidaiekin

lotutako edukiak interesatzen zaizkie gehien, eta, ondoren, kirolarekin eta umorearekin lotutakoak. 25 eta 29 urte bitartekoei gehien interesatzen zaien eduki-mota gastronomiarekin edo elikadurarekin lotutakoa da, eta ondoren kirola eta bidaiak.

1.11. taula.

2025ean 15-29 urteko gazteei gehien interesatzen zaizkien eduki-motak, sexuaren eta adin-taldean arabera (%)

Zein eduki-mota interesatzen zaizkizu gehien? *						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Kirola	39,5	27,3	51,4	49,7	32,5	35,9
Bidaiak	32,6	39,9	25,8	28,4	34,7	34,9
Umorea	29,0	27,0	31,3	34,1	28,4	24,3
Gastronomia, elikadura	27,0	31,6	22,3	19,0	25,2	37,4
Bizimodua, aisia eta ongizatea	25,8	39,1	13,6	24,3	27,0	26,3
Bideo-jokoak	25,1	8,1	40,7	34,5	22,8	17,3
Arte eta kultura (zinea, musika, literatura...)	21,9	23,1	20,4	16,1	26,0	24,0
Estilismoa (moda, makillajea, dekorazioa...)	21,8	40,5	4,4	25,2	21,4	18,5
Albisteak, gaurkotasuna, elkarriketak	20,6	17,5	23,5	12,7	23,9	25,8
Akademikoak edo profesionalak	16,9	13,9	19,8	13,7	18,3	19,0
Motorra	7,7	1,5	13,5	8,2	7,2	7,5
Filosofia, espiritualitatea	5,5	4,2	6,5	4,4	6,0	6,1
Eskulanak	5,2	9,0	1,6	6,1	3,6	5,9
Beste mota batzuk	4,5	2,2	6,7	4,3	5,6	3,6
Ez du erantzun nahi	0,3	0,6	0,1	0,6	0,4	0,0
* Portzentajeen batura 100 baino handiagoa da, pertsona bakoitzak hiru erantzun eman zitzaizkeelako, proposatutako zerrenda batetik abiatuta.						

Sexuaren eta adinaren arabera bereiziz gero, 15 eta 19 urte bitarteko gizonezko gehienei gehien interesatzen zaiena kirola da (% 65,7ri, zehazki), eta, ondoren, bideo-jokoak (% 55,4). Eduki-mota baten alde egiten duten pertsonak gehiengoa diren beste kolektiborik ez dago.

20 eta 29 urte bitarteko gizonezkoen artean kirolak interesa galtzen du 15 eta 19 urte bitarteko adin-taldearekiko konparatuz gero, baina, hala ere, gizonezkoek gehien interesatzen zaien eduki-mota izaten jarraitzen du. Gizonezkoen adinak gora egin ahala, bideo-jokoek interesa galtzen dute, eta, aldiz, gero eta gehiago dira gastronomia eta elikadura eta gaurkotasuneko albisteak eta elkarriketak interesatzen zaizkiela adierazten dutenak.

Bestalde, 15 eta 19 urte bitarteko emakumeak dira modan eta makillajearen interes handiena dutenak, «estilismo» izendatu duguna. Horrelako edukiek interesa galtzen dute adinean aurrera egin ahala, eta 20 eta 24 urte bitartean emakumeek interes zertxobait handiagoa dute bidaietan. 25 eta 29 urte bitartekoaren artean, gastronomia eta elikadura eta bidaiak dira gehien interesatzen zaizkienak.

Gizonezkoen zein emakumezkoen artean, adinak gora egin ahala, umorezko edukiekiko interesa galdu egiten da. Eta 20 urtetik aurrera, gero eta interes handiagoa pizten da albisteekiko eta artearekin eta kulturarekin lotutako edukiekiko.

1.12. taula.

2025ean Euskadiko 15-29 urteko gazteei gehien interesatzen zaizkien eduki-motak, adin-taldean arabera (%)

Zein eduki-mota interesatzen zaizkizu gehien? *						
(%)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Kirola	33,0	21,6	27,1	65,7	43,0	44,8
Bidaiak	34,0	44,4	41,5	23,4	26,3	28,0
Umorea	31,1	27,5	22,1	37,3	29,5	26,8
Gastronomia, elikadura	21,9	30,8	42,7	15,4	20,4	32,0
Bizimodua, aisia eta ongizatea	38,7	39,7	39,0	11,1	15,4	14,6
Bideo-jokoak	11,7	6,9	5,6	55,4	37,4	28,3
Arte eta kultura (zinea, musika, literatura...)	19,4	26,4	23,6	12,9	24,6	24,0
Estilismoa (moda, makillajea, dekorazioa...)	46,7	40,4	33,8	5,4	3,8	3,9
Albisteak, gaurkotasuna, elkarrizketak	11,2	20,7	21,0	13,5	26,8	30,8
Akademikoak edo profesionalak	13,5	13,8	14,5	14,0	22,6	23,2
Motorra	1,7	1,8	0,9	14,4	12,3	13,8
Filosofia, espiritualitatea	3,1	4,2	5,5	5,4	7,7	6,3
Eskulanak	12,7	4,5	9,7	0,0	2,4	2,5
Beste mota batzuk	2,3	2,3	1,9	6,2	8,7	5,2
Ez du erantzun nahi	1,2	0,4	0,0	0,0	0,4	0,0
* Portzentajeen batura 100 baino handiagoa da, pertsona bakoitzak hiru erantzun eman zitzaizkeelako, proposatutako zerrenda batetik abiatuta.						

1.7. Edukien sorkuntza




Gutxiengoa dira Interneten edukiak sortzen dituzten gazteak. Aktiboenak 25 eta 29 urte bitarteko gizonezkoak dira (hamarretik bat).

2025ean, gazteen % 7,4k dio Interneteko edukiak sortzen dituela YouTubeko kanalen, Instagramen, TikTok-en, Twitchen edo beste edozein sare sozialetan, blogetan, etab. Gainera, gazteen beste % 5,0k adierazi du lehen edukiak sortzen eta igotzen zituela, baina jada gaur egun ez.

Interneten edo sare sozialetan edukiak sortzen dituzten gazteen ehunekoa zertxobait jaitsi da 2022an eta 2023an erregistratutakoarekin alderatuta. Esan beharra dago, nolahi ere, COVID-19aren eta konfinamenduaren pandemiaren ondorioz, nabarmen handitu zela sare sozialen erabilera, eta horrek isla izan zuela saretarako edukiak sortu eta igotzen zituen gazteen ehunekoan ere. 2025ean bildutako datuen arabera, gazteen artean jarduera hori murriztu egin dela esan beharra dago.

1.8. grafikoa.

Interneten edukiak sortzen dituzten Euskadiko 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Gizon gazteek emakume gazteek baino eduki gehiago sortzen dituzte. Adinaren arabera aldea urriak dira.

1.13. taula.

2025ean Interneteko edukien sorkuntzaren arabera Euskadiko emakume eta gizon gazteen banaketa, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

Eta zu Interneteko edukien sortzailea al zara, adibidez, YouTubeko kanalen bidez, Instagramen, Twitchen, TikTok-en, blogetan...?						
(% bertikalak)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bai	7,4	6,4	8,3	6,9	7,6	7,8
Lehen bai, orain ez	5,0	2,9	7,1	6,5	3,6	5,0
Ez, inoiz ez	85,8	88,7	83,2	84,1	87,3	86,2
Ez du erantzun nahi	1,7	1,9	1,5	2,6	1,5	1,0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

25 eta 29 urte bitarteko gizonak dira edukiak gehien sortzen dituztenak (% 9,5). Aldiz, 20 eta 24 urte bitarteko emakumeak dira aktibitate gutxien dutenak Interneteko edukien sorreran (% 5,7).

1.14. taula.

2025ean Interneteko edukien sorkuntzaren arabera Euskadiko emakume eta gizon gazteen banaketa, adin-taldearen arabera (%)

Eta zu Interneteko edukien sortzailea al zara, adibidez, YouTubeko kanalen bidez, Instagramen, Twitchen, TikTok-en, blogetan...?						
(% bertikalak)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bai	7,5	5,7	6,0	6,3	9,1	9,5
Lehen bai, orain ez	2,5	2,5	3,9	10,3	4,6	6,1
Ez, inoiz ez	86,6	90,3	89,3	81,5	85,0	83,0
Ez du erantzun nahi	3,4	1,6	0,7	1,8	1,3	1,3
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

Gizonezkoek bideo-jokoekin, kirolarekin eta bizimoduarekin, aisiarekin eta ongizatearekin lotutako edukiak sortzen dituzte nagusiki. Emakumeek bizimoduarekin (gizonek baino gehiago) eta artearekin eta kulturarekin (zinema, musika, literatura, etab.) lotutako edukiak sortzeko joera dute.

Gainera, eduki akademiko edo profesionalak, estilismoekin lotutako edukiak edo eskulanekin lotutakoak sortzea ohikoagoa da emakumeen artean gizonen artean baino.

1.15. taula.

2025ean Internetera igotzeko edukiak sortu dituztela edo sortzen dituztela dioten Euskadiko 15-29 urteko gazteen artean gehien sortzen diren edukiak, sexuaren arabera (%)

Zer motatako edukiak dira Internetera gehien igoten dituzunak?*			
(%)	Guztira	Sexua	
		Emakumeak	Gizonak
Bizimodua, aisia eta ongizatea	25,4	31,8	21,7
Arte eta kultura (zinea, musika, literatura...)	22,2	31,9	16,1
Bideojokoak	20,4	3,4	30,3
Umorea	16,9	15,9	17,6
Kirola	16,4	7,9	21,4
Bidaia	12,8	14,0	12,3
Akademikoak edo profesionalak	9,5	15,6	6,1
Albisteak, gaurkotatzea, elkarrizketak	8,7	9,2	8,6
Estilismoa (moda, makillajea, dekorazioa...)	7,9	11,2	5,7
Gastronomia, elikadura	6,0	7,5	5,2
Eskulanak	5,1	10,3	2,1
Filosofia, espiritualitatea	4,0	2,6	4,8
Motorra	3,9	1,2	5,4
Beste mota batzuk	13,6	13,0	13,9
Ez du erantzun nahi	2,5	2,7	2,4
* Portzentajeen batura 100 baino handiagoa da, pertsona bakoitzak hiru erantzun eman zitzaizkela, proposatutako zerrenda batetik abiatuta.			

Ezin da adinaren arabera bereizketarik egin, edukiak sortzen dituzten gazteen kopuru urriak ez baitu ahalbidetzen estatistikoki esanguratsuak diren bereizketak egitea.

1.8. Sare sozialetan erabiltzen diren hizkuntzak




Gora egin du euskararen erabilerak sare sozialetan; gazteen % 43,6k erabiltzen du.

Euskadiko ia gazte guztiek erabiltzen dute gaztelania sare sozialetan (% 96,2). Eta gazteen erdiek baino gehiagok ingelesa erabiltzen dute sare sozialetara konektatzen direnean (% 58,9k, zehazki). Gazteen erdiak baino gutxiagok erabiltzen du euskara sare sozialetan (% 43,6k 2025ean), baina ehuneko horrek gora egin du aurreko urteekin alderatuta. Azkenik, hamar gaztetik batek beste hizkuntzaren bat erabiltzen du (% 10,0).

Sare sozialetan beste hizkuntza bat hitz egiten dutela dioten artean, gehien aipatzen direnak frantsesa (% 3,3), katalana edo valentziera (% 1,7) eta alemana (% 1,3) dira. Aipatutako gainerako hizkuntzak sare sozialetan erabiltzen dituztenen ehunekoa ez da % 1era heltzen Euskadiko gazteen artean.

1.9. grafikoa.

Sare sozialetan proposatutako hizkuntza bakoitza erabiltzen duten Euskadiko 15-29 urteko emakume eta gizon gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Emakumeek gizonak baino gehiago erabiltzen dute euskara sare sozialetan. Adinaren arabera banaketa, aldiz, oso uniformea euskararen erabileran.

Unibertsitateko edo graduondoko ikasketak egiteko adinean dauden 20 eta 24 urte bitarteko pertsonak dira ingelesa gehien erabiltzen dutenak sare sozialetan.

Azkenik, adinak gora egin ahala, proposatutako hizkuntzez gain beste batzuk erabiltzen dituzten pertsonen proportzioak ere gora egiten du. Horrek esan nahi du atzerrian jaio eta Euskadin bizi diren pertsonen kopurua ere handitu egiten dela adin-taldea handiagoa den heinean.

1.16. taula.

2025ean proposatutako hizkuntza bakoitza erabiltzen duten Euskadiko emakume eta gizon gazteen ehunekoa, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

Zein hizkuntza erabiltzen dituzu normalean sare sozialetan? *						
(hizkuntza bakoitza erabiltzen dutenen %)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Gaztelania	96,2	96,5	95,8	94,8	97,3	96,4
Ingelesa	58,9	60,0	57,6	55,8	65,0	55,9
Euskara	43,6	47,8	39,7	43,5	43,6	43,8
Beste hizkuntza bat	10,0	8,7	11,1	6,7	10,7	12,7
* Portzentajeen batura 100 baino handiagoa da hizkuntza bakoitzari buruz galdetu zelako						

Sexuaren eta adinaren arabera aldeak xeheago aztertzeak erakusten digu 15 eta 19 urte bitarteko emakumeek gehiago erabiltzen dutela ingelesa sare sozialetan beren adineko gizonen baino (% 63,1 eta % 48,5, hurrenez hurren). Hala ere, 20 urtetik gorakoen artean, sare sozialetan ingelesa erabiltzen duten gizonen proportzioa emakumeen artean erregistratutakoa baino handiagoa da.

Euskararen kasuan, emakumeek gizonen baino gehiago erabiltzen dute adin-tarte guztietan, baina aldea hamar puntu baino gehiagokoa da 20 eta 29 urte bitartekoaren artean. 15 eta 19 urte bitartekoaren artean, berriz, txikiagoa da (lau puntuko aldea).

Beste hizkuntzen kasuan, sare sozialetan erabiltzen dituzten gizonen proportzioa emakumeen ehunekoa baino handiagoa da hiru adin-taldeetan.

1.17. taula.

2025ean proposatutako hizkuntza bakoitza erabiltzen duten Euskadiko emakume eta gizon gazteen ehunekoa, adin-taldearen arabera (%)

Zein hizkuntza erabiltzen dituzu normalean sare sozialetan? *						
(hizkuntza bakoitza erabiltzen dutenen %)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Gaztelania	95,5	97,3	96,7	94,2	97,3	96,0
Ingelesa	63,1	64,1	52,5	48,5	66,0	58,5
Euskara	45,6	49,1	49,0	41,6	38,7	38,6
Beste hizkuntza bat	6,2	8,7	11,5	7,3	12,4	13,7
* Portzentajeen batura 100 baino handiagoa da hizkuntza bakoitzari buruz galdetu zelako						

Kasu honetan, bizilekuaren eta jaioterriaren arabera desberdintasunak aztertzea oso egokia da.

Gipuzkoan bizi direnek gainerakoek baino gehiago erabiltzen dute euskara sare sozialetan. Logikoa denez, Euskadin jaiotakoek atzerrian jaiotakoek baino askoz gehiago erabiltzen dute euskara.

Atzerrian jaiotakoek eta gaur egun Euskaditik kanpo bizi direnek erabiltzen dute gehien ingelesa, baita beste hizkuntza batzuk ere. Beste hizkuntza horien artean, frantsesa nabarmentzen da, sare sozialetan Euskaditik kanpo bizi direnen % 8,0k eta atzerrian jaiotakoen % 6,2k erabiltzen baitute.

1.18. taula.

2025ean proposatutako hizkuntza bakoitza erabiltzen duten Euskadiko emakume eta gizon gazteen ehunekoa, bizilekuaren eta jaiotokiaren arabera (%)

Zein hizkuntza erabiltzen dituzu normalean sare sozialetan? *							
(hizkuntza bakoitza erabiltzen dutenen %)	Guztira	Bizilekua				Jaiotokia**	
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskaditik kanpo	Euskadi	Atzerria
Gaztelania	96,2	97,6	97,5	93,6	95,7	96,0	98,0
Ingelesa	58,9	59,0	58,6	57,3	70,5	58,0	68,8
Euskara	43,6	36,0	37,6	54,8	50,6	46,6	21,1
Beste hizkuntza bat	10,0	7,7	10,9	7,7	20,3	8,3	23,8

* Portzentajeen batura 100 baino handiagoa da hizkuntza bakoitzari buruz galdetu zelako.


**Ez dira aurkezten Espainiako beste autonomia-erkidegoetan jaio diren gazteei buruzko datuak, pertsona gutxi direlako laginean eta, ondorioz, haien erantzunak ez direlako estatistikoki adierazgarriak.

Gazteei galdetzen zaienean zein den sare sozialetan gehien erabiltzen duten hizkuntza, ikusten dugu gaztelania dela, zalantzarik gabe, Euskadiko gazteek gehien erabiltzen duten hizkuntza.

Ingelesa euskara baino zertxobait gehiago erabiltzen da. Eta bilakaerari erreparatuta, sare sozialetan ingelesaren erabilera lehenesten duten gazteen ehunekoak gora egin duela ikusten dugu.

1.10. grafikoa.

Sare sozialetan gehien erabiltzen duten hizkuntzaren arabera Euskadiko 15-29 urteko gazteen banaketaren bilakaera (%)



Euskararen eta ingelesaren arteko aldea nabarmenagoa da 15 eta 19 urte bitartekoen artean. Adinean aurrera egin ahala, gero eta gehiago dira gehienbat euskara erabiltzen dutela diotenak, eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean oso antzekoak dira nagusiki euskara edo ingelesa erabiltzen dutenen ehunekoak.

1.19. taula.

2025ean, sare sozialetan gehien erabiltzen duten hizkuntzaren arabera Euskadiko 15-29 urteko gazteen banaketa, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

Eta, horien artean, zein hizkuntza erabiltzen duzu gehien sare sozialetan?						
(% bertikalak)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Gaztelania	77,7	77,3	78,6	76,1	77,1	80,1
Ingelesa	12,5	12,4	12,1	14,5	13,0	9,8
Euskara	8,9	9,7	8,1	8,1	9,0	9,5
Beste hizkuntza bat	0,3	0,2	0,3	0,0	0,4	0,4
Ez du erantzun nahi	0,7	0,5	0,9	1,2	0,5	0,2
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

25 eta 29 urte bitarteko emakumeen artean soilik gainditzen du euskarak ingelesa gehien erabiltzen den hizkuntza gisa.

1.20. taula.

2025ean, sare sozialetan gehien erabiltzen duten hizkuntzaren arabera Euskadiko 15-29 urteko gazteen banaketa, adin-taldearen arabera (%)

Eta, horien artean, zein hizkuntza erabiltzen duzu gehien sare sozialetan?						
(% bertikalak)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Gaztelania	74,2	77,8	80,1	78,2	76,7	81,1
Ingelesa	16,1	11,9	8,9	12,6	14,0	9,6
Euskara	8,9	10,0	10,1	7,5	7,8	9,0
Beste hizkuntza bat	0,0	0,0	0,5	0,0	0,8	0,2
Ez du erantzun nahi	0,7	0,3	0,4	1,7	0,8	0,0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

Gipuzkoan bizi den gazteria da, zalantzarik gabe, euskara gehien erabiltzen duena. Lurralde honetako gazteen % 17,5ek beste edozein hizkuntza baino gehiago erabiltzen dute euskara sare sozialetan, nagusiki ingelesa erabiltzen dutela dioten gainetik (% 9,9).

Euskaditik kanpo bizi direnak dira sare sozialetan nagusiki erabiltzen duten hizkuntza ingelesa dela gehien esaten dutenak (% 21,3).

Atzerrian jaiotakoek ere gehiago aipatzen dute ingelesa Euskadin jaiotakoek baino, eta, alderantziz, gutxiago aipatzen dute euskara.

1.21. taula

2025ean, sare sozialetan gehien erabiltzen duten hizkuntzaren arabera Euskadiko 15-29 urteko gazteen banaketa, bizilekuaren eta jaiolekuaren arabera (%)

Eta, horien artean, zein hizkuntza erabiltzen duzu gehien sare sozialetan?							
(% bertikalak)	Guztira	Bizilekua				Jaiolekua**	
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskaditik kanpo	Euskadi	Atzerria
Gaztelania	77,7	85,5	80,8	71,1	69,6	77,3	79,4
Ingelesa	12,5	11,9	13,3	9,9	21,3	12,3	17,3
Euskara	8,9	2,3	5,2	17,5	7,0	9,7	1,7
Beste hizkuntza bat	0,3	0,1	0,2	0,1	2,1	0,1	1,6
Ez du erantzun nahi	0,7	0,3	0,4	1,4	0,0	0,6	0,0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
**Ez dira aurkezten Espainiako beste autonomia-erkidegoetan jaio diren gazteei buruzko datuak, pertsona gutxi direlako laginean eta, ondorioz, haien erantzunak ez direlako estatistikoki adierazgarriak.							

2. KEZKAK ETA ESPERIENTZIA NEGATIBOAK SARE SOZIALETAN

Atal honetan sare sozialetan sumatzen diren arriskueta eta egoera arriskutsu edo desatseginen bizipenean jarriko dugu arreta.

2.1. Interneten eta/edo sare sozialen erabileraren inguruko kezkak




Interneten eta sare sozialen erabilerari dagokionez, gazteen kezka nagusiak hauek dira: beren informazioa, argazki edo bideo konprometituak zabaltzea bere baimenik gabe, iruzurak edo maulak pairatzea edo beren online identitatea ordeztzea. Online sexu-jazarpena jasateko posibilitateak askoz gehiago kezkatzen ditu emakumeak gizonak baino.

Euskadiko gazteek duten Internet eta sare sozialen erabileraren inguruko kezkarik handiena, ikertzaile-taldeak proposatutako egoeren zerrendatik abiatuta, beren baimenik gabe beren informazio, argazki edo bideo konprometituak zabaltzea da. Hiru gaztetik bik egoera hori aipatu dute proposatutako zerrendan gehien kezkatzen duten hiruren artean (% 66,6).

Gazteen ia erdiek adierazi dute, halaber, iruzur edo maulak pairatzeko kezka (% 48,7) edo beren online identitatea ordeztu dezaketenaren kezka (% 48,1).

2.1. grafikoa.

2025ean, 15-29 urteko Euskadiko gazteak Interneten eta sare sozialen erabilerari dagokionez gehien kezkatzen dituzten egoerak (%)



**Portzentajeen batura 100 baino handiagoa da, pertsona bakoitzak hiru erantzun eman zitzaizkeelako, proposatutako zerrenda batetik abiatuta.*

Beste % 43,1ek adierazi du gehien kezkatzen dien gauzetako bat Interneten dagoen informazioak etorkizunean kalte egin ahal izatea dela; % 32,8k adierazi du gorroto-mezuak jasateak kezkatzen duela (sexu, genero, ideologia, erlijio, jatorri, etnia eta abar direla eta). % 28,9ri bereziki kezkatzen die *online* sexu-jazarpena jasateak, eta askoz gutxiagori, % 11,8ri, diru gastua dakarten online joko edo apustuetara lotzea.


Gazteen % 2,3k sare sozialen erabilerarekin lotutako beste gai batzuk aipatu ditu bere kezka nagusi gisa. Bat-bateko erantzun horien artean sare sozialekiko adikzio edo menpekotasun arriskuarekiko kezka edo sare sozialetan zabaldu daitezkeen albiste faltsuak nabarmentzen dira.

Sexuaren eta adin-taldearen arabera aldea nabarmenak dira.

Emakumeek gizonek baino neurri handiagoan aipatzen dute beren informazioa baimenik gabe zabaltzeaz, *online* sexu-jazarpena jasan ahal izateaz edo gorroto-mezuak pairatu ahal izateaz duten kezka. Aldiz, emakumeek gizonek baino gutxiago aipatzen dute iruzurren edo maulen objektu izatearen, beren *online* identitatea ordezkari dezaketenen, edo diru-gastua dakarten *online* joko edo apustuetara lotzearen kezka.

2.2. grafikoa.

2025ean, 15-29 urteko Euskadiko gazteak Interneten eta sare sozialen erabilerari dagokionez gehien kezkatzen dituzten egoerak, sexuaren arabera (%)




**Portzentajeen batura 100 baino handiagoa da, pertsona bakoitzak hiru erantzun eman zitzaizkeelako, proposatutako zerrenda batetik abiatuta.*

Gazteenek (15-19 urte) adierazten dute gehien beren kezka, beren baimenik gabe informazio, argazki edo bideo konprometituak zabaldu daitezkeelako, sare sozialetan gorroto-mezuak jasan ditzaketelako, arrazoi edozein dela ere, *online* sexu-jazarpena jasan dezaketelako edo diruarekin *online* joko edo apustuaren menpe gera daitezkeelako. Adinean aurrera egin ahala,

areagotu egiten da iruzur edo maulen biktima izateko kezka, baita beren *online* identitatea ordezkatzekoa ere.

2.3. grafikoa.

2025ean, 15-29 urteko Euskadiko gazteak Interneten eta sare sozialen erabilerari dagokionez gehien kezkatzen dituzten egoerak, adin-taldean arabera (%)



** Portzentajeen batura 100 baino handiagoa da, pertsona bakoitzak hiru erantzun eman zitzakeelako, proposatutako zerrenda batetik abiatuta.*

Sexu eta adin-talde guztietan kezkagarriena informazioa, argazkiak edo bideo konprometituak beren baimenik gabe zabaltzea ahal izatea da, baina kezka hori bereziki nabarmena da 15 eta 19 urte bitarteko emakumeen artean; kolektibo horretan % 81,3k aipatu du (batez bestekoa baino ia hamabost puntu gorago).

15 eta 19 urte bitarteko emakumeak dira, halaber, Interneten sexu-jazarpena jasateko kezka handiena agertzen dutenak. Izan ere, horien erdiek (% 51,5) adierazi dute hori dela Interneten eta sare sozialen erabilerari dagokionez duten hiru kezka nagusietako bat.

Eta kolektibo hori bera da, 15 eta 19 urte bitarteko emakumeena, kezkatuena agertzen dena Interneten dagoen informazioak etorkizunean kalte egin diezaikeelako (% 51,0). Adin horretako gizonek askoz ere kezka txikiagoa adierazten dute gai horren inguruan (% 35,6k kontsideratzen du sare sozialen erabilerari buruzko kezka nagusietako bat).

25 eta 29 urte bitarteko emakume gehienek eta 20 eta 29 urte bitarteko gizonezko gehienek adierazi dute beren kezka nagusietakoak iruzurren biktima izatea edo beren *online* identitatea ordezkatzeko direla. Arrisku horiekiko kezka gutxien aipatzen duen kolektiboa 15 eta 19 urte

bitarteko emakumeena da, baina egia da hiru alderdi bakarrik aipa zitezkeela, eta emakume gazteenek beste egoera batzuekiko kezka handiagoa agertzen dute.

15 eta 19 urte bitarteko gizonak dira diruarekin *online* joko edo apustuen mende geratu ahal izateaz kezkatuenak; adin horretako bost gizonetik batek aipatzen du gai horrekiko kezka (% 21,4).

2.1. taula.

2025ean, 15-29 urteko Euskadiko emakume eta gizon gazteak Interneten eta sare sozialen erabilerari dagokionez gehien kezkatzen dituzten egoerak, adin-taldean arabera (%)

Interneten edo sare sozialetan gerta daitezkeen egoera hauetatik, zeinek sortzen dizu kezka handiena? Aukeratu 3 garrantzitsuenak *						
(%)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Zure informazio, argazki edo bideo konprometituak zabaltzea zure baimenik gabe	81,3	67,2	61,2	66,2	63,7	59,8
Iruzurak edo maulak pairatzea	31,9	44,0	55,7	46,5	56,8	56,8
Zure <i>online</i> identitatea ordeztzea	27,3	45,5	54,1	49,9	57,3	55,6
Interneten zuri buruz dagoen informazioak kalte egitea etorkizunean	51,0	44,3	38,7	35,6	46,9	42,5
Gorrito-mezuak pairatzea arrazoi hauengatik: sexua, generoa, ideologia, erlijioa, jatorria, etnia...	38,5	36,0	35,9	35,1	23,5	27,8
<i>Online</i> sexu-jazarpena jasatea	51,5	37,3	31,9	20,5	15,6	18,1
Diru-gastua dakarten <i>online</i> joko eta apustueta lotzea	5,2	6,9	6,6	21,4	16,2	11,8
Beste egoeraren bat	1,2	1,3	1,8	3,2	2,9	3,5
Ez du erantzun nahi	1,6	1,3	1,2	1,3	1,3	2,3
* Portzentajeen batura 100 baino handiagoa da, pertsona bakoitzak hiru erantzun eman zitzaizkeelako, proposatutako zerrenda batetik abiatuta.						

2.2. Ziberjazarpena. Bizipena eta motak



Gazteen % 21,6 sare sozialetan jazarrita sentitu da. Emakumeek gizonak baino ziberjazarpen handiagoa jasaten dute, bereziki sexuala eta matxista.


Bost gaztetik batek (% 21,6) esan du noizbait sare sozialetan jazarpena sentitu duela etengabe mezuak bidaltzen zizkion norbaitengatik, iruzkin desatseginak egiten zizkiona, iraindu egiten zuena, mehatxatu egiten zuena, eta abar. Gazteen % 2,1ek dio egoera hori askotan gertatu dela, eta % 19,5ek noizbait.

Sare sozialetan jazarpen-egoeraren bat bizi izan duten gazteen ehunekoa jaitsi egin da 2022an eta 2023an erregistratutakoarekin alderatuta. Beherakada horren arrazoi nagusia da 2025ean 15 eta 19 urte bitarteko gazteenek esan dutela aurreko urteetan adin bera zuten gazteek baino

jazarpen-egoera gutxiago bizi izan dituztela sare sozialetan. Horren arrazoiak hauek izan daitezke: ziberjazarpen-kasuek benetan behera egin izana, prebentzio, kontzientiazio edo kontrol handiagoagatik, edo pertsona gazteenek jazarpena gutxiago aitortu izana, jazarpen-jokabideak eta -egoerak normalizatu ahal izan baitituzte eta haiek identifikatzeko gai izan ez.

2.4. grafikoa.

Sare sozialetan jazarriak sentitu diren 15-29 urteko Euskadiko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



2025ean, emakume gazteak gehiago sentitzen dira edo sentitu dira jazarriak sare sozialetan gizon gazteak baino (% 26,5 eta % 16,9, hurrenez hurren). 20 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehuneko handiagoak adierazi du ziberjazarpen-egoerak bizi izan dituela 15 eta 19 urte bitartekoek baino.

2023tik 2025era asko jaitsi da sare sozialetan jazarriak sentitu direla dioten emakumeen eta, batez ere, 15 eta 19 urte bitarteko pertsonen ehunekoa.

2.2. taula.

Sare sozialetan jazarriak sentitu diren 15-29 urteko Euskadiko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

Zuk inoiz sentitu duzu pertsona batek edo batzuek erasoten edo jazartzen zintuztela, eten gabe mezuak bidaltzen, iruzkin desatseginak bidaltzen, iraintzen, mehatxatzen edo horrelakorik egiten?						
(baiezko erantzunen %)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
2025	21,6	26,5	16,9	14,1	25,5	25,5
2023	29,3	36,3	22,6	29,3	31,2	27,0
2022	31,6	39,5	24,2	27,0	36,9	31,3
2018	17,9	25,2	10,8	18,7	22,0	13,3


Sare sozialetan bizi daitezkeen jazarpen mota ezberdinei dagokienez, ikerketa honetan horietako lauri buruz galdetu dute: sexu-jazarpena, jazarpen matxista edo misoginoa, jazarpen arrazista edo xenofobia eta jazarpen homofobia. Lau mota horietatik, 2025ean Euskadiko gazteen artean

zabalduena sexu-jazarpena da. Gazteen % 14,6k adierazi du sare sozialetan sexu-jazarpena jasan duela.

Beste % 11,1ek jazarpen matxista edo misoginoa bizi izan dutela diote, % 4,6k jazarpen homofoboa eta % 4,2k jazarpen arrazista edo xenofoboa.

2.5. grafikoa.

2025ean, proposatutako jazarpen-motaren bat jasan dutela adierazi duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa (%)



Emakumeek gizonak baino askoz gehiago adierazi dute sare sozialetan sexu-jazarpeneko egoerak bizi izan dituztela (% 20,3 eta % 9,2, hurrenez hurren). Sare sozialetan jazarpen-modu hori lehen pertsona bizi izana ere gehiago aipatzen dute 20 eta 29 urte bitarteko pertsonak, 15 eta 19 urte bitartekoak baino.

Sare sozialetan sexu-jazarpeneko egoeraren bat bizi izan duten gazteen kopuruak ez du aldaketa handirik izan 2023ko datuekin alderatuta; izan ere, urte hartan, gazteen % 15,3k esan zuen sexu-jazarpeneko egoeraren bat bizi izan zuela.

Emakume gazteen % 18,4k jazarpen matxista edo misoginoa bizi izan dutela ere adierazi dute (gizonen kasuan % 4,2k). Jazarpen matxista jasan dutela dioten gazteen ehunekoa handiagoa da 20 eta 29 urte bitartekoen artean, 20 urtetik beherakoak baino.

Jazarpen homofoboa pairatu duten gazteen ehunekoa zertxobait handiagoa da gizonen artean (% 5,5) emakumeen artean baino (% 3,7). Kasu honetan ia ez dago adinaren arabera alderik.

2.3. taula.

2025ean, proposatutako jazarpen-motaren bat jasan dutela adierazi duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

Kasu horietakoren batean, jasan duzun jazarpena mota hauetakoa al zen?						
(baiezko erantzunen %)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Sexuala?	14,6	20,3	9,2	8,1	17,0	19,0
Matxista, misoginoa?	11,1	18,4	4,2	6,1	13,4	14,1
Homofoboa?	4,6	3,7	5,5	4,1	4,9	4,9
Arrazista, xenofoboa?	4,2	3,1	5,2	3,1	4,8	4,6

Azkenik, jazarpen arrazista edo xenofoboa jasan dutela dioten gazteen ehunekoa zertxobait handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino (% 5,2 eta % 3,1, hurrenez hurren), eta zertxobait handiagoa da 20 eta 29 urte bitarteko gazteen artean oraindik 20 urte bete ez dituztenen artean baino. Kasu honetan, ehunekorik altuena atzerrian jaiotakoei dagokie; horien % 18,2k jazarpen arrazista jasan dute, Euskadin jaiotakoen % 2,6ren aldean.

Sexu-jazarpena edo jazarpen matxista jasan duten gazteak, mota horretako jazarpenik jaso ez dutenak baino kezkatuago daude berriro ere *online* sexu-jazarpena pairatzeagatik eta baita sexuagatiko, generoagatiko eta abarregatik gorroto-mezuak jasateagatik ere.

Zehazki, sexu-jazarpena pairatu duten pertsonen % 38,7k eta jazarpen matxista edo misoginoa pairatu dutenen % 45,1ek aipatu dute *online* sexu-jazarpena jasatea dela sare sozialen erabilerari buruz duten kezka nagusietako bat, batez bestekoaren gainetik (% 28,9).

Gainera, sexu-jazarpena pairatu dutela dioten % 40,2k eta jazarpen matxista pairatu dutenen % 43,2k adierazi dute gorroto-mezuak jasotzea (sexua, generoa eta bestelako arrazoiak direla eta) sare sozialetan duen kezka nagusietako bat da. Ehuneko horiek ere aise gainditzen dute batezbestekoa (% 32,8).

2.3. Beste esperientzia negatibo batzuen bizipena Interneten eta/edo sare sozialetan



Gazteen % 31,7ri eduki erotiko edo sexualak iritsi zaizkie beren baimenik gabe (emakumeei gizonei baino gehiago), % 24,7k iruzurren bat edo maularen bat jasan dute, eta % 21,0ri beren fisiko edo itxuragatik iraindu diete. Hori guztia azken urtean.

Jazarpen egoerez gain, badira sare sozialetan edo Interneten gerta daitezkeen beste hainbat arrisku egoera, kaltegarriak edo besterik gabe desatseginak. Bost egoera planteatu dira, eta inkestatutako gazteei galdetu zaie ea azken urtean horietakoren bat bizi izan duten.

Planteatutakoen artean ohikoena mezu, argazki edo bideo erotiko edo sexualak bere baimenik gabe jasotzea izan da. Gazteen % 31,7ri gertatu zaio azken urtean; % 26,3ri noizbait, eta % 5,4ri askotan.

Hurrengo ohikoena iruzurrak edo maulak jasatea izan da. Gazteen laurden bat (% 24,7) iruzurren edo maulen biktima izan da. % 1,1i askotan gertatu zaio hori, eta gainerako % 23,6ri noizbait.


% 21,0ri irain egin diote sare sozialetan edo txatetan, itxura edo fisikoa dela eta. Kasu horretan, % 2,7k esan du askotan iraindu dutela, eta % 18,3k noizbait.

Askoz gutxiagok adierazi dute beren identitatea ordeztu dutela beren irudia edo erreputazioa kaltetzeko; % 6,0k, guztira.

Azkenik, % 2,7k diote beren irudiak sortu edo manipulatu dituztela adimen artifizialarekin (IA), beren erreputazioa kaltetzeko.

2.6. grafikoa.

2025ean planteatutako egoeraren bat azken urtean lehen pertsonan bizi izan dutela adierazi duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa (%)




Mezu, argazki edo bideo erotiko edo sexualak baimenik gabe jasotzea gehiago gertatu zaie emakume gazteei gizon gazteei baino (% 38,3 eta % 25,7, hurrenez hurren). Hori bat dator sare sozialetan sexu-jazarpena bizi dutela dioten emakumeen kopurua handiagoa izatearekin.

Planteatutako gainerako egoerei dagokienez, azken urtean lehen pertsonan bizi izan dituzten gizonen eta emakumeen ehunekoetan ez dago alde esanguratsurik.

2.7. grafikoa.

2025ean planteatutako egoeraren bat azken urtean lehen pertsonan bizi izan dutela adierazi duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa, sexuaren arabera (%)




20 eta 29 urte bitarteko gazteek adierazi dute 15 eta 19 urte bitartekoek baino neurri handiagoan jaso dituztela azken urtean mezu, argazki edo bideo erotiko edo sexualak haien baimenik gabe. Aldea 10 puntutik gorakoa da.

Adinak gora egin ahala, iruzurra edo maula jasan dutela dioten gazteen ehunekoak ere gora egiten du. Eta, aldea hain nabarmena ez bada ere, beren irudia edo erreputazioa kaltetzeko beren identitatea ordeztu dutela dioten ehunekoak ere gora egiten du.

2.8. grafikoa.

2025ean planteatutako egoeraren bat azken urtean lehen pertsona bizi izan dutela adierazi duten 15-29 urteko gazteen ehunekoak, adin-talde arabera (%)



Datuak sexua eta adina aldagaiak gurutzatuz aztertuz gero, alde esanguratsuak ikusten dira adin-taldearen arabera emakume eta gizon gazteek Interneten eta/edo sare sozialetan azken urtean bizi izandako esperientzia negatiboetan. Desberdintasun horiek arrisku- eta zaurgarritasun-patroiak identifikatzeko aukera ematen dute, eta prebentzio- eta sentsibilizazio-estrategiak bidera ditzakete.

Bai emakumeen artean, bai 15 eta 19 urte bitarteko gizonen artean, esperientzia negatibo ohikoenak honako hauek dira: onartu gabeko eduki sexuala jasotzea (emakumeen % 27,1 eta gizonen % 20,1) eta fisikoarekin edo itxurarekin lotutako irainak, bereziki emakumeen artean (% 22,5).

20 eta 24 urte bitarteko tartean, Interneten edo sare sozialetan esperientzia negatiboen bizipena nabarmen handitzen da. Adin-talde horretako emakumeen % 44,1ek onartu gabeko eduki sexuala jaso dutela adierazi dute, eta horrek zaurgarritasun-egoera berezia agerian uzten du. Gizonezkoen artean ere gora egin du horrelako edukiak jaso dituztenen ehunekoak, baina zifra (% 29,2) askoz txikiagoa da emakumezkoena baino.

20 eta 24 urte bitarteko artean iruzur edo maula kasuek adin-talde gazteenaren (15-19 urte) kopurua bikoiztu egiten dute. Horrelako esperientzia negatiboak ohikoagoak dira emakumeen artean gizonen artean baino (emakumeen % 31,2 eta gizonen % 26,2). Bestalde, adin-talde gazteenaren aldean, nortasun edo identitate ordezkapenak handiagotzen diren (emakumeen

% 5,5 eta gizonen % 7,5), eta baita itxura fisikoagatiko irainak ere gizonen kasuan (% 23,1); horrek sare sozialetan eta plataforma digitaletan esposizio publiko handiagoa dutela iradokitzen du.

Azkenik, 25 eta 29 urte bitarteko adin-taldean, emakumeak bereziki zaurgarriak izaten jarraitzen dute sexu-jazarpen digitalaren aurrean; % 44,1ek adierazi du beren baimenik gabeko edukia jaso duela (20 eta 24 urte bitarteko emakumeen artean erregistratutako ehuneko bera). Gizonen kasuan, iruzurrek eta maulek beren punturik altuena lortu dute, eta horien % 32,3ri eragiten diete. Era berean, identitatea ordeztzeko kasuak areagotu egin dira, eta adin-talde horretan erregistratu dira ehunekorik altuenak (emakumeen % 7,0 eta gizonen % 7,8).

2.4. taula.

2025ean planteatutako egoeraren bat azken urtean lehen pertsona bizi izan dutela adierazi duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa, adin-taldean arabera (%)

Zuk, azken urtean, bizi izan duzu lehen pertsona egoera hauetakoren bat Interneten edo sare sozialetan?						
(baiezko erantzunen %)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Mezu, argazki edo bideo erotiko edo sexualak bidali dizkizute zure baimenik gabe	27,1	44,1	44,1	20,1	29,2	28,1
Iruzurra edo maula jasan duzu	17,0	31,2	30,3	12,7	26,2	32,3
Iraindu egin zaituzte Interneten, sareetan edo txatetan zure fisikoagatik edo itxuragatik	22,5	21,0	18,4	17,8	23,1	23,3
Zure nortasuna edo identitatea ordezkatu dute zure irudia edo erreputazioa kaltetzeko	2,2	5,5	7,0	6,3	7,5	7,8
Zure irudiak adimen artifizialarekin sortu edo manipulatu dituzte zure erreputazioa kaltetzeko	3,5	2,8	1,3	2,8	2,8	3,0

Bestalde, azken urtean egoera horietakoren bat bizi izan duten pertsonak Interneten eta sare sozialen erabilerari buruz adierazten dituzten kezkei erreparatzen badiegu, esan dezakegu beren baimenik gabe eduki erotiko edo sexualeko mezuak edo irudiak jaso dituzten gazteek kezka handiagoa dutela sexu-jazarpena jasateko, azken urtean horrelako edukirik jaso ez dutenek baino (% 35,3 eta % 25,9, hurrenez hurren).

Azken urtean Interneten, sare sozialetan edo txatetan beren fisikoagatik edo itxuragatik irainduak izan diren gazteek ere kezka handiagoa agertzen dute *online* sexu-jazarpena jasateko, irainduak izan ez diren pertsonak baino (% 37,8 eta % 26,5, hurrenez hurren). Beren fisikoagatik edo itxuragatik irainduak izan diren pertsonak ere kezka handiagoa erakusten dute gorroto-mezuak jasateagatik irainik jaso ez dutenek baino, nahiz eta kasu honetan aldea ez den hain handia (% 36,1 eta % 31,9, hurrenez hurren).

Azkenik, iruzurren bat edo maularen bat jasan dutela diotenak gehiago kezkatzen dira iruzur edo maula berrien biktima izateagatik, azken urtean iruzurrik bizi izan ez dutenak baino (% 59,1 eta % 45,3 hurrenez hurren).

2.5. taula.

2025ean Euskadiko 15-29 urteko gazteak sare sozialen inguruan gehien kezkatzen dituzten egoerak, azken urtean Interneten edo sare sozialetan izandako esperientzia negatiboen arabera (%)

Interneten edo sare sozialetan gerta daitezkeen egoera hauetatik, zeinek sortzen dizu kezka handiena? Aukeratu 3 garrantzitsuenak *						
Mezu, argazki edo bideo erotiko edo sexualak jaso dituzu	Iruzurrak edo maulak jasan dituzu		Iraindu egin zaituzte sare sozialetan zure fisiko edo itxuragatik			
(%)	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Zure informazio, argazki edo bideo konprometituak zabaltzeak zure baimenik gabe	68,4	65,7	66,3	66,6	68,2	66,1
Iruzurrak edo maulak pairatzeak	46,4	49,8	59,1	45,3	40,5	50,9
Zure online identitatea ordezteak	47,4	48,4	48,3	48,0	40,8	50,0
Interneten zuri buruz dagoen informazioak kalte egiteak etorkizunean	42,3	43,5	40,8	43,8	44,2	42,8
Gorrito-mezuak pairatzeak arrazoi hauengatik: sexua, generoa, ideologia, erlijioa, jatorria, ethia...	35,8	31,4	28,7	34,2	36,1	31,9
Online sexu-jazarpena jasateak	35,3	25,9	30,9	28,2	37,8	26,5
Diru-gastua dakarten online joko eta apustuetara lotzeak	9,3	12,9	11,8	11,8	13,4	11,3
Beste egoeraren batek	1,6	2,7	2,2	2,4	1,6	2,5
Ez du erantzun nahi	1,2	1,6	0,3	1,9	0,7	1,7
* Ehunekoen batura 100 baino handiagoa da pertsona bakoitzak hiru erantzun eman zitzaizkeelako proposatutako zerrenda batetik abiatuta.						

2.4. Sare sozialetan irainak edo umiliazioak ikusi dituzten gazteak



Gazteen % 84,5ek ikusi du nola iraintzen edo umiliatzen duten norbait sare sozialetan. Ehuneko hori hamar puntu baino gehiago igo da 2018tik 2025era.


Jazarpena, iraina, identitate-ordezpena, iruzurrak eta abar lehen pertsonan bizi izan edo ez, sare sozialetan beste pertsona batzuei egindako egoera iraingarrien lekuko izan daiteke.

Euskadiko gazte gehienek (% 84,5ek, zehazki) sare sozialen batean norbait iraintzen edo umiliatzen ikusi dutela adierazi dute. % 38,8 askotan izan dira horrelako irainak ikusi dituztenak, eta gainerako % 45,7k noizbait ikusi dituzte.

Sare sozialetan beste pertsona batzuk umiliatu edo iraintzen dituztela askotan ikusi dutenen ehunekoa bikoiztu egin da 2018tik 2025era.

2.9. grafikoa.

Sare sozialetan beste pertsona batzuei egindako irainak edo umiliazioak ikusi dituzten Euskadiko 15-29 urteko gazteen banaketaren bilakaera (%)



Emakume gazteek gizonezko gazteek baino gehiago ikusi dute nola iraintzen edo umiliatzen dituzten beste pertsona batzuk sare sozialetan. Adinak gora egin ahala, egoera horiek askotan ikusi dituztenen ehunekoak ere gora egiten du.

2.6. taula.

Sare sozialetan beste pertsona batzuei egindako irainak edo umiliazioak ikusi dituzten Euskadiko 15-29 urteko gazteen banaketaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

Ikusi al duzu inoiz norbait iraintzen edo umiliatzen dutela sare sozialen batean?						
(% bertikalak)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Askotan	38,8	41,3	36,4	29,7	40,4	46,9
Noizbait	45,7	45,7	45,5	48,5	45,2	43,1
Inoiz ez	14,3	11,6	17,0	20,0	12,9	9,6
Ez du erantzun nahi	1,2	1,4	1,1	1,8	1,4	0,4
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

25 eta 29 urte bitarteko emakumeak eta gizonak dira sare sozialetan irainak eta umiliazioak gehien ikusi dituztenak, eta, gainera, antzeko ehunekoan.

Egoera horiek gutxien ikusi dituztenak (edo, behintzat, irain edo umiliazio gisa identifikatu ez dituztenak) 15 eta 19 urte bitarteko gizonak dira; laurden batek inoiz ikusi ez dituela adierazi du.

15 eta 24 urte bitarteko emakumeek beren adineko gizonek baino neurri handiagoan ikusi dute norbait iraintzen edo umiliatzen sare sozialetan.

2.7. taula.

Sare sozialetan beste pertsona batzuei egindako irainak edo umiliazioak ikusi dituzten Euskadiko 15-29 urteko gazteen banaketaren bilakaera, adin-taldearen arabera (%)

Ikusi al duzu inoiz norbait iraintzen edo umiliatzen dutela sare sozialen batean?						
(% bertikalak)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Askotan	34,1	43,1	47,0	25,5	37,8	46,8
Noizbait	49,5	43,9	43,5	47,4	46,4	42,5
Inoiz ez	14,3	11,3	9,2	25,6	14,6	10,1
Ez du erantzun nahi	2,1	1,7	0,2	1,5	1,2	0,5
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

Sare sozialetan noizbait jazarrita sentitu diren, Interneten, sare sozialetan edo txatetan beren fisiko edo itxuragatik irainak jaso dituzten eta beren baimenik gabe mezu edo irudi erotiko edo sexualak jaso dituzten pertsonak, egoera horiek lehen pertsonan bizi izan ez dituztenak baino neurri handiagoan ikusi dituzte beste pertsona batzuei egindako irain eta umiliazioak.

2.8. taula.

Sare sozialetan beste pertsona batzuei egindako irainak edo umiliazioak ikusi dituzten Euskadiko 15-29 urteko gazteen banaketaren bilakaera, sare sozialetan jasan duten jazarpen-bizipenaren edo bestelako egoera negatiboen arabera (%)

Ikusi al duzu inoiz norbait iraintzen edo umiliatzen dutela sare sozialen batean?						
(% bertikalak)	Jazarriak sentitu dira sare sozialen batean		Iraindu egin dituzte sare sozialen batean bere fisiko edo itxuragatik		Mezu, argazki edo bideo erotiko edo sexualak jaso dituzte nahi gabe	
	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Askotan	57,0	33,6	50,0	35,8	50,5	33,3
Noizbait	37,8	48,2	44,5	46,0	41,5	47,6
Inoiz ez	4,2	17,5	4,8	16,8	7,2	17,6
Ez du erantzun nahi	1,0	0,8	0,7	1,4	0,8	1,4
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

Sare sozialetan beste pertsona batzuk nola iraintzen edo umiliatzen dituzten ikusi dutenak dira sareetan gorroto-mezuak jasateko kezka handiena adierazi dutenak (% 38,9, batez bestekoa den % 32,8 baino sei puntu gainetik).

3. GAURKOTASUNeko INFORMAZIOA, GEZURRAK ETA HAINBAT MOTATAKO EDUKIAK IKUSTEA SARE SOZIALETAN

Atal honetan, aztertuko ditugu zeintzuk diren gazteek erabiltzen dituzten gaurkotasunari buruzko informazio-iturriak, baita gezurren eta eduki polemikoen eraginpean egoten ote diren eta eduki horiek gaurkotasuneko gaiei buruz dituzten iritzietan izan dezaketen eragina ere.

3.1. Gaurkotasunari buruzko albisteen informazio-iturriak



Gazte gehienek sare sozialen bidez jasotzen dute gaurkotasuneko albisteen berri, batez ere Instagram bidez.


Sare sozialak dira gazteen informazio-iturri nagusia, gaurkotasuneko albisteei dagokienez. Euskadiko lau gaztetik hiruk sare sozialen bidez jarraitzen dituzte eguneroko albisteak (% 74,6).

Gazteen herenak baino gehiagok egunero edo ia egunero izaten du albisteen berri telebista edo *online* prentsaren bidez, baina ez dira gehienak. Nolanahi ere, erdiak baino gehiagok jotzen dute informazio-iturri horietara gutxienez astean behin.

Papereko prentsa da gazteek gutxien erabiltzen duten komunikabidea, gaurkotasunari buruz informatzeko.

3.1. grafikoa.


Euskadiko 15-29 urteko gazteek zenbateko maiztasunarekin jarraitzen dituzten gaurkotasuneko albisteak hainbat komunikabidetan (%)



Egunero edo ia egunero gaurkotasunari buruzko informazioa sare sozialen bidez jasotzen duten emakume gazteen ehunekoa gizon gazteena baino handixeagoa da (% 78,8 eta % 71,1, hurrenez hurren). Gizon gazteek emakumeek baino gehiago erabiltzen dituzte gaurkotasunari buruzko beste informazio-iturri batzuk eguneroko maiztasunarekin.

3.2. grafikoa.


Egunero gaurkotasunari buruzko albisteak hainbat komunikabideren bidez jarraitzen dituzten Euskadiko emakume eta gizon gazteen ehunekoen arteko konparazioa (%)



Adinak gora egin ahala, behera egiten du egunero sare sozialetara eta telebistara jotzen duten gazteen ehunekoak, eta, aldiz, gora egiten du *onlineko* prentsara jotzen dutenen ehunekoak. 25-29 urte bitarteko pertsonak dira irrati edo *podcasten* bidez gehien informatzen direnak, nahiz eta, hala ere, gutxiengoak izan iturri horietara jotzen dutenak.

3.3. grafikoa.

Egunero gaurkotasunari buruzko albisteak hainbat komunikabideren bidez jarraitzen dituzten Euskadiko gazteen ehunekoa, adin-taldearen arabera (%)



Ondoren, zehazten da kolektibo bakoitzeko gazteek zein maiztasunez jarraitzen dituzten gaurkotasuneko albisteak proposatutako informazio-iturrien bidez.

3.1. taula.

Euskadiko 15-29 urteko gazteek zein maiztasunez jarraitzen dituzten gaurkotasuneko albisteak hainbat informazio-iturriren bidez, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

Zein maiztasunez izaten duzu gaurkotasuneko albisteen berri honako informazio-iturri hauetako bakoitzaren bidez?							
(% bertikalak)		Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
			Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Sare sozialak	Egunero edo ia egunero	74,6	78,8	71,1	79,8	74,9	68,7
	Gutxienez astean behin	13,1	11,9	14,0	10,2	13,4	15,9
	Gutxiagotan	7,2	5,6	8,7	6,7	6,8	8,3
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	4,2	3,2	5,1	2,3	3,8	6,8
	Ez du erantzun nahi	0,8	0,5	1,1	1,1	1,1	0,3
Telebista	Egunero edo ia egunero	38,9	38,0	40,1	48,1	34,3	33,7
	Gutxienez astean behin	23,7	24,0	23,7	25,1	25,5	20,4
	Gutxiagotan	15,6	16,9	14,2	11,4	16,7	19,0
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	21,1	20,9	20,9	14,5	22,5	26,8
	Ez du erantzun nahi	0,7	0,2	1,1	0,8	1,0	0,2
Prentsa online	Egunero edo ia egunero	34,8	33,3	36,3	21,3	38,1	45,9
	Gutxienez astean behin	24,8	24,8	25,1	22,6	26,0	26,1
	Gutxiagotan	20,7	20,9	20,4	23,7	21,8	16,4
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	18,5	20,3	16,8	30,8	12,8	11,2
	Ez du erantzun nahi	1,1	0,7	1,4	1,6	1,2	0,4
Irratia	Egunero edo ia egunero	13,8	13,1	14,7	11,1	11,3	19,4
	Gutxienez astean behin	13,1	12,1	13,9	11,0	13,3	15,1
	Gutxiagotan	22,2	23,7	21,1	21,4	23,7	21,6
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	50,0	50,6	49,0	55,1	50,8	43,6
	Ez du erantzun nahi	0,9	0,5	1,3	1,3	1,0	0,3
Podcastak	Egunero edo ia egunero	9,2	8,4	10,0	7,8	8,8	11,2
	Gutxienez astean behin	20,3	18,4	22,3	17,4	22,6	21,2
	Gutxiagotan	28,3	29,5	27,2	24,1	28,9	32,0
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	41,2	43,1	39,3	49,1	38,7	35,4
	Ez du erantzun nahi	1,0	0,7	1,2	1,6	1,0	0,3
Egunkariak edo aldizkariak paperean	Egunero edo ia egunero	4,5	3,9	5,1	3,7	4,6	5,3
	Gutxienez astean behin	13,5	12,2	14,8	13,6	14,1	12,7
	Gutxiagotan	26,0	26,9	25,3	24,0	25,5	28,8
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	55,1	56,5	53,5	57,3	54,7	53,1
	Ez du erantzun nahi	0,9	0,5	1,3	1,4	1,0	0,2
GUZTIRA		100	100	100	100	100	100

Sexua eta adina gurutzatzean ikusten dugu 15-19 urteko emakumeak direla egunero sare sozialen bidez gehien informatzen direnak. Edonola ere, kolektibo guztietan gehiengoa dira egunero sare sozialetara jotzen dutenak, gaurkotasunari buruzko informazioa jasotzeko.

15 eta 19 urte bitarteko gizonen erdiak baino gehiagok telebista bidez ere izaten dute informazioa egunero. 20 urtetik aurrera gutxiengoa dira egunero telebistan albisteak ikusten dituztenak.

25 urte bete arte gizonek gehiago jotzen dute *online* prentsara emakumeek baino. Adin horretatik aurrera, egunkari digitaletako eguneroko albiste-kontsumoa antzekoa da gizonezkoetan eta emakumezkoetan.

25-29 urteko gizonezkoak dira irratia edota *podcastak* eguneroko gehien entzuten dituztenak.

3.2. taula.


Egunero gaurkotasunari buruzko albisteak hainbat komunikabideren bidez jarraitzen dituzten Euskadiko emakume eta gizon gazteen ehunekoa, adin-taldean arabera (%)

Zein maiztasunez izaten duzu gaurkotasuneko albisteen berri honako informazio-iturri hauetako bakoitzaren bidez?						
(egunero edo ia egunero iturri bakoitzaren bidez informatzen direnen %)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Sare sozialak	82,9	79,3	73,7	77,1	71,2	64,4
Telebista	43,3	36,3	33,9	52,8	32,9	34,0
Prentsa online	19,5	34,8	46,7	23,1	41,3	45,6
Irraia	11,9	10,5	16,9	10,4	12,1	22,3
Podcastak	5,6	10,0	9,6	9,8	7,6	12,7
Egunkariak edo aldizkariak paperean	2,3	4,8	4,8	4,9	4,5	5,9

Gazteek gaurkotasunari buruzko informazioa jasotzeko gehien erabiltzen duten iturria sare sozialak direla ikusita, sakonago aztertuko dugu gazteek zein sare sozialetara jotzen duten albisteen berri izateko.

3.4. grafikoa.

Euskadiko 15-29 urteko gazteek zein maiztasunez jarraitzen dituzten gaurkotasuneko albisteak hainbat sare sozialetan (%)




Hamar gaztetik seik Instagram bidez jasotzen dute eguneroko albisteen berri (% 60,1). Gazteen kopuru handi batek honako sare sozial hauetara ere jotzen du egunero informazioa eskuratzeko: WhatsApp (% 41,0), TikTok (% 37,7), YouTube (% 22,0) eta X (% 20,7). Baina, ikusten dugunez, gutxiengoa dira egunero sare sozial horien bidez informatzen direnak. Gaurkotasuneko albisteen berri izateko egunero LinkedIn, Telegram edo Facebookera jotzen dutenak % 10 baino gutxiago dira kasu bakoitzean. Azkenik, % 2 baino gutxiago ari da egunero gaurkotasuneko informazioa bilatzen beste sare sozial batzuetan, hala nola Discord, Bluesky edo Mastodon

Nahiz eta Instagram izan gizon zein emakume gazteen informazio iturri nagusia, sexuaren arabera ezberdintasun batzuk aipa ditzakegu. Emakumeek gizonak baino neurri handiagoan adierazten dute egunero Instagram eta TikTok bidez informatzen direla (izan ere, emakumeen ia erdiek egunero ikusten dituzte TikTok gaurkotasuneko albisteak). Gizonezkoak emakumezkoak baino proportzio handiagoan informatzen dira egunero YouTube eta Xen bidez.

3.5. grafikoa.

Egunero gaurkotasunari buruzko albisteak hainbat sare sozialen bidez jarraitzen dituzten Euskadiko emakume eta gizon gazteen ehunekoen arteko konparazioa (%) *




* Grafikoa ez dira azaltzen egunero gizonen eta emakume gazteen % 5ek baino gutxiagok informazioa jasotzeko erabiltzen dituzten sare sozialak

Adinak gora egin ahala, behera egiten du eguneroko albisteen berri Instagram edota TikTok bidez izaten duten gazteen ehunekoak. Gaurkotasuneko informazioa Instagram bidez jasotzen dutenak % 65,1 dira 15-19 urtekoen artean, eta % 53,0 izatera jaisten dira 25-29 urtekoen artean (hala ere, gehiengoa dira). TikTok bidez egunero informatzen diren pertsonak erdiak baino gehiago dira adin-talde gazteenean (15-19 urte); azken horien artean % 52,9 baitira. Adin-talde zaharrenean (25-29 urte), aldiz, % 22,0ra jaisten dira.

Aitzitik, adinak aurrera egin ahala, gero eta gehiago dira X, LinkedIn, Facebook eta Telegram bidez informazioa egunero jasotzen dutenak, nahiz eta 25 eta 29 urte bitarteko adin-taldean ere ehunekoak oso urrun dauden gehiengoa osatzetik.

3.6. grafikoa.

Egunero gaurkotasunari buruzko albisteak hainbat sare sozialen bidez jarraitzen dituzten Euskadiko gazteen ehunekoa, adin-taldeen arabera (%)*



* Grafikoa ez dira azaltzen egunero adin-talde bakoitzeko gazteen % 5ek baino gutxiagok informazioa jasotzeko erabiltzen dituzten sare sozialak

Sexua eta adina gurutzatuta ikus dezakegu zein gazte kolektibo informatzen den gehien sare sozial bakoitzaren bidez, nahiz eta azpimarratu behar den Instagram dela gaurkotasunari buruzko informazio iturri nagusia gazte talde guztientzat.

25 urtetik beherako emakumeak dira egunero gaurkotasuneko albisteak Instagram bidez gehien ikusten dituztenak. Aitzitik, 25 eta 29 urte bitarteko gizonetakoak dira sare sozial horren bidez gutxien informatzen direnak; izan ere, adin horretako gizonen erdiak baino gutxiago informatzen dira egunero Instagram bidez.

20 eta 29 urte bitarteko emakumeen % 40k baino gehiagok ikusten dituzte albisteak WhatsApp bidez: gizonen artean kontrakoa gertatzen da, 20 urtetik beherakoak dira sare sozial horren bidez gehien informatzen direnak, % 40tik gorako ehunekoa.

15 eta 19 urte bitarteko hamar emakumetik seik TikTok bidez jasotzen dute informazioa (% 62,9); izan ere, adin horretako emakumeak askoz gehiago informatzen dira TikTok bidez WhatsApp bidez baino. Gizonen artean, TikTok erabiltzen dutenak ere gehiago dira 20 urtetik beherakoen artean, baina ez dira gehienak.

25 urtetik beherako gizonen % 30 baino gehiago informatzen da egunero YouTube bidez. Adin horretako emakumeen artean, eguneroko albisteen berri izateko Youtubera jotzen dutenen portzentajea % 13,6 baino ez da.

Informatzeko X edo LinkedIn gehiago erabiltzen dira adinak aurrera egin ahala, baina igoera hori nabarmenagoa da gizonen artean emakumeen artean baino. 25-29 urteko gizonen % 34,4k X-en bidez jasotzen dute eguneroko informazioa, eta, haien artean, sare sozial hori hirugarrena da informazio-iturrien zerrendan, TikTok eta YouTuberen aurretik.

25 eta 29 urte bitarteko emakumeak dira egunero Facebook bidez gehien informatzen direnak; hala ere, adin horretako hamar emakumetik batek bakarrik erabiltzen du egunero informazio-iturri gisa.

3.3. taula.

Egunero gaurkotasunari buruzko albisteak hainbat sare sozialen bidez jarraitzen dituzten Euskadiko emakume eta gizon gazteen ehunekoa, adin-taldearen arabera (%)

Eta zein maiztasunez izaten duzu gaurkotasuneko albisteen berri honako sare sozial hauetako bakoitzaren bidez?						
(egunero edo ia egunero sare sozial bakoitzaren bidez informatzen direnen %)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Instagram	68,2	67,2	61,1	62,4	57,4	45,9
WhatsApp	39,5	43,0	46,0	45,3	37,6	35,3
TikTok	62,9	47,1	28,4	43,6	28,0	16,2
YouTube	13,6	13,6	11,9	32,7	31,4	26,9
X	10,5	17,7	20,8	13,3	28,0	34,4
LinkedIn	0,4	7,5	11,3	0,4	11,0	16,1
Telegram	1,2	4,9	7,4	3,3	6,7	8,3
Facebook	1,2	1,7	10,4	1,4	3,7	7,6
Discord	0,8	0,4	1,2	1,9	2,6	2,2
Bluesky	0,0	0,2	0,5	0,4	1,3	2,6
Mastodon	0,0	0,0	0,2	0,0	0,9	0,5

3.2. Albiste faltsuen edo *fake newsen* eraginpean egotea




Lau gaztetik hiruk diote *fake newsen* eraginpean egon direla azken astean. Gazteen % 13,4 baino ez da sentitzen oso seguru albiste faltsuak antzeman ditzakeela ikusten dituenen.

Sare sozialetan gezur asko argitaratzen dira, eta, batzuetan, zaila izaten da horiek identifikatzea. 15-29 urteko lau pertsonatik hiruk (% 77,6k) adierazi dute inkestaren aurreko astean desinformazioaren edo *fake newsen* eraginpean egon direla: % 18,2k esan du egunero edo ia egunero egon dela ikusgai; % 26,3k adierazi du hainbat egunetan (3-5 bitartean) ikusi dituela; eta % 33,1ek adierazi du egunen batean (1-2) desinformazioa edo *fake newsak* jaso dituela.

Gainera, % 12,8k ez daki ikusi duen informazioaren artean albiste faltsuak egon diren ala ez. Eta % 8,6k soilik adierazi du aurreko asteko egun bakar batean ere ez dela egon desinformazioaren edo gezurren eraginpean.

3.7. grafikoa.

Euskadiko 15-29 urteko gazteen banaketa 2025ean, azken astean desinformazioaren edo *fake newsen* eraginpean egon diren maiztasunaren arabera (%)



Sare sozialetan desinformazioaren edo albiste faltsuen eraginpean egotea nahiko hedatua dago emakume eta gizon gazteen artean, bai eta aintzat hartutako hiru adin-taldeetan ere. Gizonak eta 25 eta 29 urte bitarteko gazteak dira egunero *fake newsen* eraginpean egon direla gehien adierazi dutenak; aldiz, emakumeek eta 15-19 urtekoek aitortu dute gehien ez dakitela albiste faltsuen eraginpean egon diren ala ez.

3.4. taula.

Euskadiko 15-29 urteko gazteek azken astean zenbat egunetan egon diren desinformazioaren edo *fake newsen* eraginpean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

Azken astean, zein maiztasunez izan duzu ikusgai desinformazioa edo <i>fake newsak</i> ?						
(% bertikalak)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Egunero edo ia egunero (6-7 egun)	18,2	13,3	22,6	14,4	16,7	23,7
Zenbait egunetan (3-5 egun)	26,3	24,5	28,1	25,7	28,6	24,4
Egunen batean (egun 1-2)	33,1	36,9	29,5	34,7	32,9	31,7
Egun batean ere ez	8,6	9,5	7,9	8,2	9,6	8,1
Ez dakizu	12,8	15,3	10,4	15,7	11,2	11,5
Ez duzu erantzun nahi	1,0	0,5	1,5	1,3	1,0	0,5
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

Zehazkiago, 25-29 urteko gizonak dira egunero desinformazioa eta albiste faltsuak ikusten dituztela gehien esan dutenak (% 29,5ek); 15-19 urteko emakumeek, berriz, aitortu dute gehien ez dakitela *fake newsen* eraginpean egon diren edo ez (% 18,7k).

3.5. taula.


Euskadiko emakume eta gizon gazteek azken astean zenbat egunetan egon diren desinformazioaren edo *fake newsen* eraginpean, adin-taldean arabera (%)

Azken astean, zein maiztasunez izan duzu ikusgai desinformazioa edo <i>fake newsak</i> ?						
(% bertikalak)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Egunero edo ia egunero (6-7 egun)	9,4	13,5	17,4	19,2	19,7	29,5
Zenbait egunetan (3-5 egun)	21,7	28,8	23,2	29,6	28,4	26,2
Egunen batean (egun 1-2)	40,6	34,7	35,1	29,2	31,3	27,9
Egun batean ere ez	9,2	9,5	9,7	7,0	9,8	6,8
Ez dakizu	18,7	12,8	14,3	12,9	9,4	8,8
Ez duzu erantzun nahi	0,5	0,7	0,2	2,1	1,3	0,9
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

Hala ere, gazteei galdetzen zaienean zer segurtasun sentitzen duten albiste faltsuak edo *fake newsak* identifikatzeko haien eraginpean daudenean, soilik gazteen % 13,4k dio oso seguru sentitzen dela horiek ezagutzeko. Gazteen beste % 46,5 seguru samar sentitzen da, baina hiru gaztetik batek (% 34,0k) adierazi du ez dagoela oso ziur albiste faltsuak identifikatzeko gai ote den. Beste % 4,6k ez daki zein neurritan den gai.

3.8. grafikoa.

Euskadiko 15-29 urteko gazteen banaketa 2025ean, desinformazioa edo *fake newsak* aurkitzen dituztenean identifikatu ahal izateko sentitzen duten segurtasunaren arabera (%)



Gizon gazteak emakumeak baino askoz ere seguruago sentitzen dira *fake news*ak identifikatzen jakiteaz; gizonen % 19,0k dio oso seguru dagoela horiek identifikatzeaz, emakumeen kasuan % 7,2k baino ez.

Adinak gora egin ahala, *fake news*ak identifikatzeko seguru sentitzen diren gazteen ehunekoak ere gora egiten du, eta, alderantziz, horrelako albiste faltsuak identifikatzeko gai ote diren ez dakitenen ehunekoak behera egiten du.

3.6. taula.

Euskadiko 15-29 urteko gazteek, 2025ean, desinformazioa edo *fake news*ak aurkitzen dituztenean identifikatu ahal izateko sentitzen duten segurtasuna, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

Ziur zaude desinformazioa edo <i>fake news</i> ak antzeman ditzakezula aurkitzen dituzunean?						
(% bertikalak)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Oso ziur	13,4	7,2	19,0	11,5	13,0	15,9
Gehienbat ziur	46,5	45,4	47,6	44,3	46,6	48,8
Ez oso ziur	28,3	34,2	23,0	28,5	31,0	25,3
Batere ziur ez	5,7	6,8	4,6	5,4	5,1	6,7
Ez dakizu	4,6	5,6	3,7	7,9	3,0	2,7
Ez duzu erantzun nahi	1,4	0,9	1,9	2,4	1,3	0,6
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

Sexuaren eta adinaren arabera aldeak zehatzago aztertzean, ikusten dugu emakumeen artean ez dagoela hainbesteko alderik adinaren arabera; gizonen artean, aldiz, segurtasunak gora egiten du nabarmen urteak bete ahala.

3.7. taula.


Euskadiko emakume eta gizon gazteek, 2025ean, desinformazioa edo *fake news*ak aurkitzen dituztenean identifikatu ahal izateko sentitzen duten segurtasuna, adin-taldearen arabera (%)

Ziur zaude desinformazioa edo <i>fake news</i> ak antzeman ditzakezula aurkitzen dituzunean?						
(% bertikalak)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Oso ziur	7,0	5,7	8,9	15,6	19,6	22,1
Gehienbat ziur	47,3	44,2	44,5	41,5	48,6	53,4
Ez oso ziur	29,7	38,8	34,3	27,5	24,3	16,8
Batere ziur ez	5,1	6,9	8,3	5,6	3,4	4,9
Ez dakizu	9,2	3,6	3,7	6,8	2,4	1,8
Ez duzu erantzun nahi	1,7	0,8	0,3	3,1	1,8	0,9
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

Albiste faltsuak edo *fake news*ak identifikatzeko gai izateko oso edo nahiko seguru sentitzen diren gazteek horretaz seguru sentitzen ez direnek (ez daude oso seguru, ez daude batere seguru edo ez dakite) baino gehiago adierazi dute *fake news* horien eraginpean egon direla azken astean: % 83,2 eta % 70,2, hurrenez hurren. Albiste faltsuak identifikatzen seguru sentitzen ez direnen artean, % 22,3k aitortu du ez dakiela zer neurritan egon den desinformazioaren eraginpean.

3.9. grafikoa.

Euskadiko gazteak azken astean desinformazioaren edo *fake news*en eraginpean egondako egun kopurua, *fake news* horiek aurkitzen dituztenean identifikatu ahal izateko sentitzen duten segurtasunaren arabera (%)



3.3. Sare sozialetan eduki polemikoen eraginpean egotea edo eskuratzea



Gazteen % 20 baino gehiago egunero dago, nahita edo nahi gabe, eduki-mota hauen eraginpean: immigrazioaren aurkako iruzkinak, demokraziaren edo erakunde demokratikoen funtzionamenduari egindako kritikak, baita genero-berdintasuneko politikak baztertzeiko edukiak ere. Hamar emakumetik bat egunero dago anorexia eta muturreko argaltasuna sustatzen duten edukien eraginpean.

Sare sozialetan, nahita edo nahi gabe, hainbat eduki mota ikus daitezke, horietako batzuk beti politikoki zuzenak edo bizikidetza eta ongizate pertsonala sustatzera bideratuak ez direnak. Sare sozialetan gaika multzokatutako iruzkin- edo eduki-mota batzuk ikusten dituzten maiztasunari buruz galdetu diegu Euskadiko gazteei.

Hamar gaztetik hiruk adierazi dute, beren borondatez edo nahi gabe, immigrazioaren aurkako iruzkinak ikusten dituztela egunero (% 30,0k). % 15,9k bakarrik esan du ez duela inoiz horrelako iruzkinik ikusi.


Gainera, % 28,2, nahita edo nahi gabe, demokraziaren edo erakunde demokratikoen funtzionamendua kritikatzeko duten edukietara heltzen da egunero edo ia egunero. Eta % 23,5 egunero egoten da genero-berdintasuneko politikak baztertzen dituzten eduki edo iruzkinen eraginpean.

Pertsona horiei astean behin gutxienez horrelako edukiak ikusten dituztenak gehitzen badizkiegu, ondoriozta dezakegu gazteriaren gehiengoak immigrazioaren, demokraziaren edo erakunde demokratikoen funtzionamenduaren eta genero-berdintasunaren politiken aurkako iruzkinen eraginpean dagoela astero (% 50 baino gehiago hiru kasuetan).

Gainera, gazteen % 18,6k egunero ikusten ditu indarkeria justifikatzen duten iruzkinak, % 13,7k egunero eskuratzen ditu herritarrak kontrolatzeko konspirazioei buruzko edukiak, % 10,0k egunero ikusten ditu klima-aldaketa ukatzen duten edukiak edo iruzkinak, % 7,4k anorexia eta muturreko argaltasuna sustatzen dituzten edukiak ikusten ditu, eta, azkenik, gazteen % 2,0ri egunero heltzen zaizkio, borondatez edo nahi gabe, beren burua zauritzeko moduei buruzko edukiak.

3.10. grafikoa.

Euskadiko 15-29 urteko gazteen banaketa 2025ean, zenbait eduki-motaren eraginpean dauden maiztasunaren arabera (%)



Egunero eduki mota horien eraginpean dauden emakumeen eta gizon gazteen arteko ezberdintasunak funtsezkoak dira.


Gizonezkoek egunero, nahita edo nahi gabe, emakumezkoek baino eduki gehiago ikusten dituzte gai hauekin lotuta: immigrazioaren aurkako iruzkinak, demokraziaren edo erakunde demokratikoen funtzionamenduaren aurkako kritikak, genero-berdintasunerako politiken aurkako edukiak, indarkeriazko jarrerak justifikatzekoak, gu kontrolatzeko konspirazioak eta klima-aldaketa ukatzekoak. Aitzitik, emakume gazteek gizonek baino neurri handiagoan

eskuratzen dituzte (nahita edo nahi gabe) anorexia eta muturreko argaltasuna sustatzen dituzten edukiak. Nork bere burua zauritzeko aholkuak ematen dituzten edukien eskuratze-ehunekoak antzekoak dira gizonen eta emakume gazteen artean.

Adinaren arabera aldea ez da hain nabarmenak, baina aipatu behar da 25-29 urte bitarteko pertsonak direla egunero gehien ikusten dituztenak immigrazioaren aurkako iruzkinak, baita genero-berdintasunerako politiken aurkako edo klima aldaketa ukatzeko edukiak ere.


3.11. grafikoa.

Egunero, nahita edo nahi gabe, hainbat eduki-mota ikusten dituztela dioten Euskadiko emakume eta gizon gazteen ehunekoa, 2025ean (%)



3.12. grafikoa.

Egunero, nahita edo nahi gabe, hainbat eduki-mota ikusten dituztela dioten Euskadiko gazteen ehunekoa, 2025ean, adin-taldeen arabera (%)



Ondoren, zehazten da emakumeek, gizonek eta adin-talde bakoitzeko gazteek, borondatez edo nahi gabe sare sozialetan eduki-mota bakoitza zer maiztasunekin ikusten duten.

3.8. taula.

Euskadiko 15-29 urteko gazteek, nahita edo nahi gabe, zein maiztasunez ikusten dituzten hainbat eduki-mota 2025ean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

Nahita edo nahi gabe, zein maiztasunez ikusten dituzu sare sozialetan gai hauetako bakoitzari buruzko edukiak edo iruzkinak?							
(% bertikalak)		Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
			Emaku-meak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Immigrazioaren aurkako iruzkinak	Egunero edo ia egunero	30,0	23,7	36,0	28,8	28,3	33,0
	Gutxienez astean behin	30,1	30,2	30,2	24,9	33,6	32,1
	Gutxiagotan	21,2	25,2	17,2	20,7	22,1	20,7
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	15,9	18,6	13,4	22,0	13,3	12,2
	Ez du erantzun	2,8	2,4	3,3	3,7	2,7	2,0
Demokraziaren edo erakunde demokratikoen funtzionamenduari egindako kritikak	Egunero edo ia egunero	28,2	24,0	32,3	25,0	29,6	30,3
	Gutxienez astean behin	33,4	31,7	34,7	28,3	33,7	38,4
	Gutxiagotan	20,2	23,1	17,6	19,1	23,0	18,5
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	14,9	18,3	11,8	23,4	10,9	10,0
	Ez du erantzun	3,2	2,9	3,6	4,1	2,8	2,7
Genero-berdinatasunerako politiken aurkako iruzkinak	Egunero edo ia egunero	23,5	20,0	26,7	21,7	22,4	26,5
	Gutxienez astean behin	30,0	31,4	28,6	25,8	32,0	32,4
	Gutxiagotan	25,5	26,7	24,5	24,4	28,7	23,3
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	18,4	19,6	17,3	24,6	14,6	15,8
	Ez du erantzun	2,6	2,3	2,9	3,5	2,2	2,0
Indarkeriazko jarrerak justifikatzeko iruzkinak	Egunero edo ia egunero	18,6	17,1	20,1	19,5	18,5	17,8
	Gutxienez astean behin	24,9	26,0	23,9	17,9	26,9	30,4
	Gutxiagotan	28,3	29,3	27,2	28,8	28,5	27,6
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	25,4	25,4	25,4	30,1	23,6	22,1
	Ez du erantzun	2,8	2,3	3,4	3,7	2,5	2,2
Gu kontrolatzeko konspirazioei buruzko edukiak	Egunero edo ia egunero	13,7	11,0	16,4	13,1	13,3	14,8
	Gutxienez astean behin	26,0	23,0	29,0	26,5	24,4	27,2
	Gutxiagotan	29,9	34,1	26,0	27,2	32,7	29,9
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	27,4	29,5	25,1	29,6	27,0	25,6
	Ez du erantzun	2,9	2,4	3,4	3,7	2,6	2,5
Klima-aldaketa ukatzeko edukiak edo iruzkinak	Egunero edo ia egunero	10,0	7,8	12,0	9,0	9,0	12,0
	Gutxienez astean behin	21,4	20,7	22,0	20,1	21,2	22,9
	Gutxiagotan	34,9	37,2	32,8	30,5	37,2	37,1
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	31,1	32,3	29,9	36,9	29,8	26,4
	Ez du erantzun	2,7	2,0	3,3	3,5	2,8	1,7
Anorexia eta muturreko argaltasuna sustatzen duten edukiak	Egunero edo ia egunero	7,4	11,1	4,0	6,7	8,3	7,3
	Gutxienez astean behin	14,4	17,9	11,1	17,1	13,4	12,5
	Gutxiagotan	19,5	24,3	14,8	19,5	18,6	20,5
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	56,1	44,3	67,2	53,1	57,2	58,0
	Ez du erantzun	2,6	2,3	2,9	3,6	2,5	1,6
Autolesionatzeko aholkuak	Egunero edo ia egunero	2,0	1,5	2,5	2,5	2,5	1,0
	Gutxienez astean behin	4,6	5,9	3,5	6,3	3,4	4,0
	Gutxiagotan	13,4	15,0	11,8	14,5	13,0	12,6
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	77,2	75,3	79,0	73,3	78,1	80,6
	Ez du erantzun	2,7	2,4	3,2	3,5	2,9	1,8
GUZTIRA		100	100	100	100	100	100

Sexua eta adina gurutzatzean, zehaztu dezakegu zein kolektibo diren eduki-mota horietako bakoitzaren eraginpean neurri handienez daudenak.

25-29 urteko gizonen ikusten dituzte gehien sare sozialetan immigrazioaren aurkako iruzkinak (% 38,4k egunero, eta beste % 34,6k gutxienez astean behin). Nabarmentzekoa da, halaber, 15-19 urteko gizonen % 37,4k egunero ikusten dituela horrelako iruzkinak. Adin-talde guztietan gehiago dira, egunero, nahita edo nahi gabe, horrelako edukiak ikusten dituzten gizonezkoak emakumezkoak baino. Gizonen eta emakumeen arteko aldea handiagoa da adin-talde gazteenean (gizonen % 37,4 eta emakumeen % 19,7).

Demokraziaren edo erakunde demokratikoen funtzionamenduari egiten zaizkion kritiken eraginpean egotea ohikoagoa da 25-29 urteko gizonen artean (% 35,8k egunero ikusten ditu horrelako kritikak eta beste % 40,5 batek gutxienez astean behin). Berrirori ere, gizonezkoek emakumezkoek baino ehuneko handiagoak dituzte hiru adin-taldeetan.

Genero-berdintasunerako politiken aurkako iruzkinak gehiago ikusten dituzte 25-29 urteko gizonen gainerako kolektiboek baino. Edonola ere, 25 urtetik beherakoek artean ere lau gizonetik batek egunero ikusten ditu horrelako edukiak sare sozialetan.

Indarkeria justifikatzen duten edukiak egunero ikusten dituzten gazteen ehunekoa altuagoa da 15-19 urteko gizonen artean; izan ere, adin horretako gizonen laurden batek egunero edo ia egunero ikusten ditu (% 24,1). 15-19 urteko emakumeen artean, ia hamar puntu baxuagoa da (% 14,7). 20 eta 29 urte bitartekoek artean, ehuneko orokorra txikiagoa izateaz gain, ez dago alderik emakumeen eta gizonen artean.

Gure burua kontrolatzeko konspirazioei buruzko edukien eraginpean gehiago daude gizonak emakumeak baino, eta, gainera, gero eta ohikoagoa da gizonak adinean aurrera egin ahala. Ehunekorik handiena, beraz, 25-29 urteko gizonen artean jasotzen da (% 19,0). Emakumeen artean, aldiz, konspirazioei buruzko edukiak egunero jasotzen dituztenen ehunekoa ez da aldatzen adinaren arabera.

Klima-aldaketa ukatzen duten eduki edo iruzkinen eraginpean egunero egoten diren gizonen portzentajea emakumeena baino handixeagoa da, eta, kasu bietan, 25-29 urteko pertsonen ehunekoa handiagoa da oraindik 25 urte bete ez dituztenena baino. Zifrarik altuena 25-29 urteko gizonen dagokien (% 13,5).

Orain arte, ikusi dugu egunero immigrazioaren kontrako edukiak, demokraziarekin kritikoak direnak, genero-berdintasuneko politiken aurkakoak, konspirazioei buruzkoak eta klima-aldaketa ukatzen dituztenak gehiago ikusten dituztela gizonen emakumeek baino. Aitzitik, anorexia eta argaltasun muturrekoa sustatzen duten edukien kasuan, eguneroko esposizioa handiagoa da emakumeen artean, adin-talde guztietan, baina, batez ere, 20 eta 24 urte bitarteko emakumeen artean (% 13,6, adin horretako gizonen portzentajea baino hamar puntu altuagoa).

Nork bere burua zauritzeko aholkuei dagokienez, egunero ikusten dituztenen portzentajeei erreparatzen badiegu, ikusten dugu hori pixka bat handiagoa dela 20-24 urteko gizonen artean (% 3,7), baina gutxienez astean behin ikusten dituztenen ehunekoei erreparatuz gero, esan dezakegu horrelako edukiak egunero edo asteko egunen batean ikusten dituztenen ehuneko metatua handiagoa dela 20 urtetik beherako emakumeen artean (% 12,6).

3.9. taula.

Euskadiko emakume eta gizon gazteek, nahita edo nahi gabe, zein maiztasunez ikusten dituzten hainbat eduki-mota 2025ean, adin-taldearen arabera (%)

Nahita edo nahi gabe, zein maiztasunez ikusten dituzu sare sozialetan gai hauetako bakoitzari buruzko edukiak edo iruzkinak?							
(% bertikalak)		Emakumeak			Gizonak		
		15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Immigrazioaren aurkako iruzkinak	Egunero edo ia egunero	19,7	23,9	27,7	37,4	32,5	38,4
	Gutxienez astean behin	27,7	33,2	29,7	22,3	34,1	34,6
	Gutxiagotan	24,9	26,0	24,6	16,5	18,1	16,9
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	25,0	14,4	15,9	19,2	12,3	8,1
	Ez du erantzun	2,7	2,4	2,1	4,6	3,1	2,0
Demokraziaren edo erakunde demokratikoen funtzionamenduari egindako kritikak	Egunero edo ia egunero	20,6	26,3	25,2	29,2	32,2	35,8
	Gutxienez astean behin	27,3	32,8	35,3	29,3	34,9	40,5
	Gutxiagotan	20,2	25,5	23,8	18,1	20,9	13,5
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	28,5	12,7	13,1	18,5	9,1	7,3
	Ez du erantzun	3,3	2,8	2,6	4,9	2,9	2,9
Genero-berdintasunerako politiken aurkako iruzkinak	Egunero edo ia egunero	16,4	20,9	23,1	26,7	24,0	29,7
	Gutxienez astean behin	31,2	32,1	30,9	20,6	32,1	33,7
	Gutxiagotan	24,7	28,2	27,3	24,2	29,0	20,0
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	25,4	16,7	16,2	23,9	12,7	15,1
	Ez du erantzun	2,3	2,1	2,5	4,6	2,2	1,6
Indarkeriazko jarrerak justifikatzeko iruzkinak	Egunero edo ia egunero	14,7	19,0	17,6	24,1	18,1	18,0
	Gutxienez astean behin	19,8	28,5	29,9	16,0	25,1	31,3
	Gutxiagotan	33,2	27,2	27,2	24,6	29,7	27,4
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	29,5	23,2	23,3	30,7	24,2	20,9
	Ez du erantzun	2,8	2,0	2,0	4,6	3,0	2,4
Gu kontrolatzeko konspirazioei buruzko edukiak	Egunero edo ia egunero	11,8	10,4	10,7	14,4	16,2	19,0
	Gutxienez astean behin	22,3	22,7	24,2	30,5	26,3	30,2
	Gutxiagotan	32,2	34,6	35,5	22,3	30,9	24,8
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	31,0	29,6	27,7	28,2	24,1	22,9
	Ez du erantzun	2,7	2,7	1,8	4,6	2,5	3,1
Klima-aldaketa ukatzeko edukiak edo iruzkinak	Egunero edo ia egunero	6,5	6,9	10,1	11,4	11,2	13,5
	Gutxienez astean behin	20,1	21,9	20,2	20,2	20,7	25,2
	Gutxiagotan	33,8	38,0	40,1	27,5	36,5	34,7
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	37,2	31,1	28,1	36,4	28,2	24,5
	Ez du erantzun	2,4	2,2	1,5	4,5	3,4	2,0
Anorexia eta muturreko argaltasuna sustatzen duten edukiak	Egunero edo ia egunero	9,8	13,6	10,1	3,8	3,6	4,7
	Gutxienez astean behin	18,2	18,5	16,9	16,0	8,7	8,2
	Gutxiagotan	27,5	22,5	22,8	11,8	14,7	18,1
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	41,4	43,3	48,6	64,2	70,1	67,4
	Ez du erantzun	3,0	2,1	1,6	4,2	2,9	1,6
Autolesionatzeko aholkuak	Egunero edo ia egunero	2,5	1,3	0,5	2,4	3,7	1,5
	Gutxienez astean behin	10,1	4,2	3,0	2,8	2,7	5,0
	Gutxiagotan	18,5	14,3	12,0	10,7	12,0	12,9
	Inoiz ez edo ia inoiz ez	66,2	77,9	82,4	79,9	78,0	79,1
	Ez du erantzun	2,7	2,3	2,1	4,2	3,5	1,6
GUZTIRA		100	100	100	100	100	100

3.4. Gaurkotasuneko gaiei buruzko iritziak eta gai horiei buruzko eduki eztabaidagarrien eraginpean egotearekin duten lotura



Berdintasuna zalantzan jartzen duten mezuen, immigrazioaren aurkako iruzkinen edo demokraziarekiko kritiken eraginpean egoteak, besteak beste, ez du esan nahi gazteek ideia horiek hartzen dituztenik; askotan horrelako edukiak ikusteak gogoeta eta analisi kritikoa eragin ditzake, eta, ondorioz, diskurtso horien aurkako jarrerak indartu.

Gazteek diskurtso kritiko edo gaitzespen-edukiak ikustearen eta beren jarrera ideologikoak eratzearen arteko harremana fenomeno konplexua eta aurpegi askotakoa da. Gaur egungo testuinguruan, gizarte-sareen nonahikotasunak eta edukien ekoizpenaren demokratizazioak markatutako testuinguruan, funtsezkoa da aztertzea nola eragiten duen gaitzespen-mezuen gehiegizko esposizioak gazteen iritzi eta jarrera politiko eta sozialetan.

Plataforma digitaletan mezu kritikoekiko edo baztertze-mezuekiko esposizioa handitzeak jarrera horiekiko atxikimendu handiagoa dakarrela pentsa badaiteke ere, datuek iradokitzen dute erlazio hori ez dela zuzena, ezta unibokoa ere. Immigrazioaren edo berdintasun-politiken aurkako edukiekiko, genero-indarkeria ukatzen duten mezuekiko edo demokrazia kritikatzeko diskurtsoekiko esposizio-mailari buruz gazteek ematen dituzten erantzunek, adibidez, ez dute lotura logikorik eta aurreikusteko modukorik haien jarrera ideologikoekin. Hau da, ez da baieztatzen esposizio handiago batek mezu horien planteamenduen onarpen handiagoa dakarren hipotesia.

Aitzitik, zenbait diskurtsok dakartzaten manipulazioari eta izaera lerratuari buruzko kontzientziak gazteen gaitasun kritikoa indartu dezake, muturreko postulatuak baztertzea eramanez. Horrek agerian uzten du faktore bitartekarien garrantzia, hala nola pentsamendu kritikoa, prestakuntza eta ingurune soziala. Gazteek diskurtso kritikoak edo gaitzespenak ikustearen eta jarrera ideologikoak eratzearen arteko harremana banakako, gizarteko eta egiturazko faktoreek baldintzatzen dute. Ingurune digitalak gazteriaren ideologia automatikoki determinatzen duela dioen ikuspegi sinplistik ez du ebidentziaren aurrean sostengatzen.

Jarraian, hainbat gairi buruzko baieztapenekin gazteek duten adostasun-maila neurtuko dugu, eta aztertuko dugu zer lotura dagoen sare sozialetan gai horiei buruzko edukiak ikustearen eta horiei buruzko iritziaren artean. Horretarako, aldeztu aurretik, gaien araberrako sailkapen bat ezarri dugu, eta sailkapen horretatik bost bloke ateratu dira. Horrela, genero-berdintasunari eta LGTBIQ+ kolektiboari, immigrazioari, demokraziari, klima-aldaketaari eta biztanleria kontrolatzeko konspirazioei buruz emakume eta gizon gazteek duten iritzia aztertuko dugu.

3.4.1. Genero-berdintasuna eta LGTBIQ+ kolektiboa



Gazte gehienek berdintasunaren aldeko eta genero-indarkeriaren aintzatespenaren aldeko jarrerak dituzte. Hala ere, gizon gazteen heren batek baino gehiagok uste du hain urruti iritsi dela emakumeen berdintasunaren sustapenean, ezen orain gizonak diskriminatzen baitira. Berdintasun-politiken aurkako edukiak edo iruzkinak sare sozialetan ikusteak edo ez ikusteak ez dakar iritzi-desberdintasun nabarmenik.


Oro har, gazteen artean berdintasunaren aldeko adostasun handia dagoela islatzen dute datuek: bikote homosexualek seme-alabak bikote heterosexualen baldintza berdinetan hazteko duten gaitasuna babesten dute gazte gehienek, genero-indarkeria benetako arazo gisa hartzen dute gehienek, eta, nahiz eta gazte-segmentu esanguratsu batek (batez ere gizonak) berdintasun-politikak zalantzan jartzen dituen, gutxiengoa dira politika horiek sustatzea defendatzen dutenen aurrean.

Zehazki, gazteen % 87,0 ados dago bikote homosexualek bikote heterosexualak bezala hazi ditzaketela seme-alabak. Ehuneko horrek baieztatzen du LGTBIQ+ familien hazteko eskubidearen normalizazio sozial oso zabala dagoela, baztertze-maila txikiekin, eta horrek iradokitzen du gazteriaren iritzi publikoak bat egiten duela berdintasun eta familia-aniztasun esparruekin.

Gazteen % 89,3 ez dago ados genero-indarkeria asmakizun ideologikoa izatearekin. Eraitza horrek oso adostasun sendoa erakusten du emakumeenganako indarkeriaren errealitateari buruz, eta ukazioa oso jarrera minoritariotzat uzten du.

3.13. grafikoa.

Euskadiko 15-29 urteko gazteen banaketa 2025ean, genero-berdintasunari eta LGTBIQ+ kolektiboari buruzko baieztapenekin duten adostasun-mailaren arabera (%)



Emakumeen berdintasunaren sustapenean hain urrun iritsi denez, orain gizonak diskriminatzen ari direla dioten baieztapenari dagokionez, gazteen % 67,5ek errefusatu egiten dute, % 26,2k babestu egiten dute eta % 6,4k ez du erantzuten. Gehiengoa, beraz, ez dator bat

“gainerreakzioko” narratibarekin. Hala ere, lau gaztetik bat ideia horrekin ados egoteak lan-eremu garrantzitsua adierazten du sentibilizazio-politiketarako eta komunikazio-kanpainetarako, batez ere, pertzepzio hori barneratuago egon daitekeen segmentuetarako.

Emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak nabarmenak dira gai honi dagokionez. Gizon gazteen heren batek baino gehiagok (% 38,3k) uste du urrutiegi iritsi dela emakumeen berdintasuna sustatzeari dagokionez, eta orain gizonak diskriminatzen ari direla. Emakumeen artean % 13,7k du iritzi hori. Iritzi horretako emakumeen ehunekoa gizonena baino askoz txikiagoa den arren, nabarmentzekoa da hamar emakumetik batek pentsatzea berdintasun-politikekin gizonak diskriminatzen direla.


Familia-aniztasunaren normalizazioa ere sendoagoa da emakumeen artean gizon gazteen artean baino. Emakumeek gizonak baino gehiago defendatzen dute bikote homosexualek seme-alaba bat hazi dezaketela, bikote heterosexualek bezala (emakumeen % 93,9k uste du hori eta gizonen kasuan % 80,5ek), nahiz eta bi kasuetan gehienak ados izan.

Genero-indarkeria ukatzen duten jarrerak oso gutxi dira. Baina hamar gizonetik batek (% 11,3k) uste du genero-indarkeriarik ez dagoela eta asmakizun ideologikoa dela. Iritzi hori duten emakumeen portzentajea % 2,8koa da.

Ondoriozta dezakegu, beraz, gai hauen inguruan emakumeen eta gizonen arteko iritzi ezberdintasunak nabarmenak direla: emakumeek gizonak baino babes handiagoa ematen diete berdintasuna sustatzeari eta genero indarkeriaren aintzatespenari; gizonen artean, berriz, berdintasun politikak zalantzan jartzen dituztenen ehuneko handiagoa dago, emakumeen artean baino.

3.14. grafikoa.

Euskadiko emakume eta gizon gazteek, 2025ean, genero-berdintasunari eta LGBTIQ+ kolektiboari buruzko baieztapenekin duten adostasun-maila (%)



Emakumeen eta gizonen iritzien arteko aldeak adinaren arabera aztertzen baditugu, ikusiko dugu hiru adin-taldeetan emakumeek adostasun handia dutela bikote homosexualek bikote heterosexualek adina hazi dezaketela seme-alaba bat (ideia horrekin ados dauden emakumeen

ehunekoa % 90etik gorakoa da hiru adin-taldeetan). Gizonezkoen artean ere, gehienek onartzen dute familia-aniztasuna, baina ehunekoak emakumeenak baino txikiagoak dira. Gainera, gizonen adinak gora egin ahala, ideia horren aldeko ehunekoak ere gora egiten du, 25 eta 29 urte bitarteko gizonen artean % 84,3 izatera iritsi arte.

Emakume gazteek arbuio argia erakusten dute emakumeen berdintasunaren sustapenean urrunegi iritsi dela eta orain gizonak diskriminatzen ari direla dioen ideiarenean. Emakumeen artean, ideia horrekin ados dauden portzentajea oso txikia da, eta ez dago adinagatiko alde nabarmenik. Gizon gazteen artean iritziak banatuago daude, nahiz eta adin-talde guztietan gehiago diren ideia horrekin ados ez daudenak, ados daudenak baino. Gizonen adinak behera egin ahala, gora egiten du berdintasun-politikekin gizonak diskriminatzen direla pentsatzen dutenen ehunekoak. Adostasunik handiena (% 41,0) 20 urtetik beherako gizonen artean dago

Genero-indarkeria ukatzen duten jarrerak gutxi partekatzen dituzte, bai emakumeen artean, bai gizon gazteen artean; hala ere, genero-indarkeriarik ez dagoela eta asmakizun ideologikoa dela adierazten dutenen ehunekoak altuxeagoak dira gizonen artean emakumeen artean baino, aztertutako hiru adin-taldeetan. Gainera, bai emakumeen artean, bai gizonen artean, ideia horrekin ados dauden ehunekoak pixka bat igotzen dira adinak behera egin ahala, eta % 13,8ra iristen dira 15-19 urteko gizonen artean, eta % 3,9ra adin bereko emakumeen artean.

3.10. taula.

Euskadiko emakume eta gizon gazteek, 2025ean, genero-berdintasunari eta LGTBIQ+ kolektiboari buruzko baieztapenekin duten adostasun-maila, adin-taldeen arabera (%)

Zein neurritan zaude ados edo kontra honako baieztapen hauetako bakoitzarekin?							
(% bertikalak)		Emakumeak			Gizonak		
		15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bikote homosexualek bikote heterosexualek bezain ongi hazi dezakete seme edo alaba bat	Ados	94,6	93,9	93,3	76,2	81,3	84,3
	Kontra	2,9	2,7	4,4	15,4	11,9	11,4
	Ez du erantzun	2,5	3,4	2,3	8,4	6,8	4,3
Emakumeen berdintasunaren sustapenean hain urrun iritsi denez, orain gizonak dira diskriminatuak	Ados	15,0	11,9	14,1	41,0	39,9	33,4
	Kontra	77,6	82,6	82,6	49,9	53,2	60,8
	Ez du erantzun	7,3	5,6	3,3	9,1	6,8	5,7
Ez dago genero-indarkeriarik, asmakizun ideologikoa da	Ados	3,9	2,6	1,8	13,8	11,0	8,9
	Kontra	95,1	93,1	95,6	79,2	83,9	89,6
	Ez du erantzun	0,9	4,3	2,7	7,0	5,1	1,5
GUZTIRA		100	100	100	100	100	100

Oro har, datuek adierazten dute emakumeek, adina edozein dela ere, sentsibilitate eta konpromiso handiagoa erakusten dutela berdintasunarekiko, aniztasunarekiko eta genero-indarkeriaren aintzapenarekiko. Bestalde, gizon gazteenek eszeptizismo-maila handiagoa dute, nahiz eta jarrera hori moteldu egiten den adinak aurrera egin ahala. Desberdintasun horiek kontuan hartu behar dira gazteei zuzendutako hezkuntza-politikak eta sentsibilizazio-kanpainak diseinatzean, eta arreta berezia jarri behar zaie gizonezkoei lehenengo adin-tarteetan.

Bestalde, sare sozialetan genero-berdintasunerako politiken aurkako edukiak ikusteak ez du eraginik gazteek planteatutako baieztapenen aurrean duten jarreretan.

Genero-indarkeriari dagokionez ere, ez da iritzi-desberdintasunik ikusten indarkeria (oro har) justifikatzen duten edukien eraginpean dauden pertsonen eta sare sozialetan horrelako iruzkinik ikusten ez dutenen artean.

3.11. taula.

Euskadiko gazteek, 2025ean, genero-berdintasunari eta LGTBQ+ kolektiboari buruzko baieztapenekin duten adostasun-maila, sare sozialetan gutxienez astean behin genero-berdintasunerako politikak gaitzesteko eta indarkeria justifikatzeko edukiak ikusten ote dituzten arabera (%)

Zein neurritan zaude ados edo kontra honako baieztapen hauetako bakoitzarekin?					
(% bertikalak)		Genero-berdintasunerako politikak gaitzesteko edukiak ikusi ohi ditu		Indarkeriazko jarrerak justifikatzeko edukiak ikusi ohi ditu	
		Bai	Ez	Bai	Ez
Bikote homosexualek bikote heterosexualek bezain ongi hazi dezakete seme edo alaba bat	Ados	89,0	87,1	90,8	86,3
	Kontra	7,5	9,7	6,9	9,6
	Ez du erantzun	3,5	3,2	2,3	4,2
Emakumeen berdintasunaren sustapenean hain urrun iritsi denez, orain gizonak dira diskriminatuak	Ados	26,8	26,0	23,3	29,0
	Kontra	69,1	67,4	72,7	64,9
	Ez du erantzun	4,2	6,6	4,1	6,0
Ez dago genero-indarkeriarik, asmakizun ideologikoa da	Ados	8,0	6,3	6,5	7,8
	Kontra	89,8	90,7	91,2	89,5
	Ez du erantzun	2,2	3,1	2,3	2,6
GUZTIRA		100	100	100	100

3.4.2. Immigrazioa




Gazte gehienek uste dute etorkinek bertakoek dituzten eskubide eta betebeharrak berberak izan behar dituztela. Eta gazteen erdiek baino gehiagok pentsatzen dute immigrazioa beharrezkoa dela euskal ekonomiak aurrera egin dezan. Sare sozialetan immigrazioaren aurkako iruzkinak ikusten dituzten gazteak dira, hain zuzen ere, immigrazioa beharrezkoa dela neurri handienez uste dutenak.

Gazteen % 87,5ek uste du pertsona guztiek, bertakoek zein etorkinek, eskubide eta betebeharrak berdinak izan behar ditugula. Halaber, gazteen erdiak baino gehiago (% 53,3) ados daude immigrazioa beharrezkoa dela euskal ekonomiak aurrera egin dezan dioen baieztapenarekin, baina hirutik bat (% 32,3) ez dago ados azken ideia horrekin.

3.15. grafikoa.

Euskadiko 15-29 urteko gazteen banaketa 2025ean, immigrazioari buruzko hainbat baieztapenekin duten adostasun-mailaren arabera (%)




Emakumeek gizonek baino gehiago partekatzen dute pertsona guztiek, jatorria edozein dela ere, eskubide eta betebeharrak berberak izan behar ditugulako ideia.

Aldiz, euskal ekonomiak aurrera egin dezan immigrazioa beharrezkoa dela dioten gizonen ehunekoa emakumeena baino handixeagoa da. Hala ere, emakumeen adostasuna txikiagoa izateak ez dakar desadostasun handiagoa (desadostasun zifrak oso antzekoak dira), baizik eta emakumeek ez-erantzunaren ehuneko handiagoa dutela.

3.16. grafikoa.

Euskadiko emakume eta gizon gazteek, 2025ean, immigrazioari buruzko hainbat baieztapenekin duten adostasun-maila (%)



Sexua eta adina gurutzatzean, ikusten dugu gizonek adinean aurrera egin ahala gero eta adostasun handiagoa dutela pertsona guztiek, bertakoek eta etorkinek, eskubide eta betebeharrak berberak izan behar dituztela. Emakumeen artean ia ez dago alderik adinaren arabera.

Euskal ekonomiak aurrera egin dezan immigrazioa beharrezkoa den ala ez galdetuta, ideia horrekiko adostasuna handitu egiten da gizonen adinak behera egin ahala, eta 20 urtetik beherakoek adierazten dute adostasun-maila handiena. Emakumeen artean kontrakoa gertatzen da, akordioa apalagoa da oraindik 20 urte bete ez dituztenen artean. Nolanahi ere, nabarmendu behar da emakumeen artean erantzunik ezaren ehunekoa gizonena baino handiagoa dela hiru adin-taldeetan.

3.12. taula.

Euskadiko emakume eta gizon gazteek, 2025ean, immigrazioari buruzko hainbat baieztapenekin duten adostasun-maila, adin-taldean arabera (%)

Zein neurritan zaude ados edo kontra honako baieztapen hauetako bakoitzarekin?							
(% bertikalak)		Emakumeak			Gizonak		
		15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Pertsona guztiek, bertakoek eta etorkinek, eskubide eta betebeharrak berberak izan behar ditugu	Ados	90,6	89,9	89,8	82,2	84,4	88,6
	Kontra	5,9	5,2	6,4	12,2	12,2	9,9
	Ez du erantzun	3,6	4,8	3,7	5,6	3,3	1,4
Immigrazioa beharrezkoa da euskal ekonomiak aurrera egin dezan	Ados	41,8	54,4	52,0	60,3	58,6	51,7
	Kontra	38,8	25,1	31,3	27,7	31,0	39,5
	Ez du erantzun	19,4	20,6	16,7	12,0	10,4	8,7
GUZTIRA		100	100	100	100	100	100

Sare sozialetan immigrazioaren aurkako iruzkinak sarritan ikusteak ez dirudi eraginik duenik pertsona guztiek, bertakoek eta etorkinek, eskubide eta betebeharrak berberak izan behar ote ditugun dioen iritzian.

Hala ere, sare sozialetan immigrazioaren aurkako iruzkinak ikusten dituzten gazteek horrelako iruzkinen eraginpean ez daudenek baino gehiago diote immigrazioa beharrezkoa dela euskal ekonomiak aurrera egin dezan. Gizarte-sareetan immigrazioaren aurkako iruzkinak ikusten ez duten pertsonen artean, ekonomiak aurrera egiteko immigrazioaren beharrari buruz iritzirik ematen ez dutenen ehunekoa batezbestekoa baino handiagoa da (bost pertsonatik batek, % 9,3k, ez du erantzun).

3.13. taula.

Euskadiko gazteek, 2025ean, immigrazioari buruzko hainbat baieztapenekin duten adostasun-maila, sare sozialetan gutxienez astean behin immigrazioaren aurkako iruzkinak ikusten ote dituzten arabera (%)

Zein neurritan zaude ados edo kontra honako baieztapen hauetako bakoitzarekin?			
(% bertikalak)		Immigrazioaren aurkako iruzkinak ikusi ohi ditu	
		Bai	Ez
Pertsona guztiek, bertakoek eta etorkinek, eskubide eta betebeharrak berberak izan behar ditugu	Ados	89,7	86,9
	Kontra	9,2	8,6
	Ez du erantzun	1,1	4,5
Immigrazioa beharrezkoa da euskal ekonomiak aurrera egin dezan	Ados	59,0	46,2
	Kontra	31,8	34,6
	Ez du erantzun	9,2	19,3
GUZTIRA		100	100

3.4.3. Demokrazia




Lau gaztetik hiruk uste dute demokrazia dela gobernu-modurik onena. Sare sozialetan demokraziaren eta erakunde demokratikoen funtzionamenduari egindako kritiken eraginpean dauden gazteen artean are gehiago dira iritzi hori dutenak.

Lau gaztetik hiruk (% 74,6k) uste dute demokrazia dela gobernatzeko modurik onena.

Emakume eta gizon gazte gehienek demokrazia defendatzen dute gobernu-modurik onena delakoan, baina hala iritzien ez dioten ehunekoa handixeagoa da gizon gazteen artean (% 16,7) emakume gazteen artean baino (% 9,5).

3.17. grafikoa.

Euskadiko 15-29 urteko gazteek, 2025ean, demokrazia gobernatzeko modurik onena dela dioen baieztapenarekin duten adostasun-maila, sexuaren arabera (%)



Demokraziaren egokitasunari buruz 15 eta 19 urte bitarteko emakumeek eta gizonak dituzten iritziak antzekoak dira. 20 urtetik aurrera, demokrazia gobernatzeko modurik onena izatearekin ados ez daudela adierazten duten gizonen ehunekoa, gutxiengoa izan arren, adin bereko emakumeena baino bi aldiz handiagoa da.

3.14. taula.

Euskadiko emakume eta gizon gazteek, 2025ean, demokrazia gobernatzeko modurik onena dela dioen baieztapenarekin duten adostasun-maila, adin-taldearen arabera (%)

Zein neurritan zaude ados edo kontra honako baieztapen hauetako bakoitzarekin?							
(% bertikalak)		Emakumeak			Gizonak		
		15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Demokrazia da gobernu modurik onena	Ados	74,3	75,2	78,9	75,4	69,2	75,2
	Kontra	11,1	8,3	9,1	12,6	19,0	18,5
	Ez du erantzun	14,5	16,5	12,0	12,0	11,8	6,2
GUZTIRA		100	100	100	100	100	100

Demokraziaren edo erakunde demokratikoen funtzionamenduari buruzko kritikak astero sare sozialetan jasotzen dituzten gazteek, horrelako edukietan sartzen ez direnek baino neurri handiagoan adierazten dute ados daudela demokrazia dela gobernatzeko modurik onena. Demokraziaren funtzionamenduari egindako kritikarik ikusten ez duten gazteek ehunekoa handiagoan ez dute erantzun gai honi buruz galdetu zaienean.

3.15. taula.

Euskadiko gazteek, 2025ean, demokrazia gobernatzeko modurik onena dela dioen baieztapenarekin duten adostasun-maila, sare sozialetan gutxienez astean behin demokraziaren edo erakunde demokratikoen funtzionamenduari egindako kritikak ikusten ote dituzten arabera (%)

Zein neurritan zaude ados edo kontra honako baieztapen hauetako bakoitzarekin?			
(% bertikalak)		Demokraziaren edo erakunde demokratikoen funtzionamenduari buruzko kritikak ikusi ohi ditu	
		Bai	Ez
Demokrazia da gobernu modurik onena	Ados	78,3	72,1
	Kontra	14,2	12,0
	Ez du erantzun	7,5	15,8
GUZTIRA		100	100

3.4.4. Klima-aldaketa




Hamar gaztetik batek uste du klima-aldaketa zerbait ziklikoa dela, eta ez dela giza-ekintzaren ondorio. Ez da iritzi desberdintasunik ikusten sare sozialetan klima-aldaketaren eduki negazionisten eraginpean egotearen arabera.

Gazteen % 10,8 ados dago “klima-aldaketa” deitzen dena noizean behin gertatzen den aldaketa dela, glaziazioekin gertatu zen bezala, eta giza ekintzaren ondorio ez dela dioen ideiarekin. Gazte gehienak, ordea, ez daude ados ideia horrekin (% 83,5).

Gizon gazteen artean, klima-aldaketa naturaren aldaketa ziklikoa dela, eta ez dela giza jardueraren ondorio uste dutenen ehunekoa emakume gazteen artean jasotakoa baino handiagoa da. Edonola ere, gizon eta emakume gazteen artean gehiengoa da baieztapen horren aurka agertzen den kopurua.

3.18. grafikoa.

Euskadiko 15-29 urteko gazteek, 2025ean, klima-aldaketa naturaren aldaketa ziklikoa dela eta ez dela giza-ekintzaren ondorio dioen baieztapenarekin duten adostasun-maila, sexuaren arabera (%)



Gutxiengoan bada ere, 15 eta 19 urte bitarteko gazteak dira klima-aldaketa gizakiaren ekintzaren ondorio ez den zerbait naturala delako ideia gehien partekatzen dutenak. Adin-talde guztietan, ideia horrekin ados dauden gizonen ehunekoa handiagoa da emakumeena baino. Ehunekorik handiena, beraz, 15-19 urteko gizonen dagokie (% 16,8). Adinean aurrera egin ahala, gero eta desadostasun handiagoa dago ideia horrekiko.

3.16. taula.

Euskadiko emakume eta gizon gazteek, 2025ean, klima-aldaketa naturaren aldaketa ziklikoa dela eta ez dela giza-ekintzaren ondorio dioen baieztapenarekin duten adostasun-maila, adin-taldearen arabera (%)

Zein neurritan zaude ados edo kontra honako baieztapen hauetako bakoitzarekin?							
(%) bertikalak)		Emakumeak			Gizonak		
		15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
"Klima-aldaketa" deitzen dena naturaren aldaketa bat da, aldiro gertatzen dena, glaziazioekin gertatu zen bezala, eta ez da giza-ekintzagatik gertatzen	Ados	8,3	6,2	6,4	16,8	14,0	12,8
	Kontra	85,7	87,1	89,7	76,3	80,0	83,0
	Ez du erantzun	5,9	6,7	3,9	6,9	6,1	4,2
GUZTIRA		100	100	100	100	100	100

Ez da iritzi-desberdintasunik sumatzen klima-aldaketa ukatzen duten edukien eraginpean gutxienez astero dauden gazteen eta horrelako iruzkin edo edukirik ikusten ez dutenen artean.

3.17. taula.

Euskadiko gazteek, 2025ean, klima-aldaketa naturaren aldaketa ziklikoa dela eta ez dela giza-ekintzaren ondorio dion baieztapenarekin duten adostasun-maila, sare sozialetan gutxienez astean behin klima-aldaketa ukatzen dituzten edukiak ikusten ote dituzten arabera (%)

Zein neurritan zaude ados edo kontra honako baieztapen hauetako bakoitzarekin?			
(% bertikalak)		Klima-aldaketa ukatzen duten edukiak ikusi ohi ditu	
		Bai	Ez
"Klima-aldaketa" deitzen dena naturaren aldaketa bat da, aldiro gertatzen dena, glaziazioekin gertatu zen bezala, eta ez da giza-ekintzagatik gertatzen	Ados	11,5	10,8
	Kontra	84,0	85,2
	Ez du erantzun	4,4	4,0
GUZTIRA		100	100

3.4.5. Biztanleria kontrolatzeko konspirazioak




Gazte gehienek baztertu egiten dute 5G teknologia herritarrek kontrolatzeko konspirazio global baten parte dela, baina 15 eta 19 urte bitarteko bost gaztetik batek hala uste du. Kasu honetan, sare sozialetan konspirazioei buruzko edukien eraginpean dauden pertsonen gainerakoek baino adostasun-maila handiagoa erakusten dute ideia horrekin.

Gazteen % 14,1 ados dago 5G teknologia biztanleria kontrolatzeko konspirazio global baten parte izatearekin. Gazte gehienak (% 72,2), aldiz, ez daude ados ideia horrekin.

Baieztapen horrekiko adostasun-maila antzekoa da emakumeen eta gizon gazteen artean, baina emakumeek gizonak baino ez-erantzun gehiago dituzte, eta horrek nolabaiteko ziurgabetasuna eta zalantza adierazten du baieztapenaren egiazkotasunari dagokionez.

3.19. grafikoa.

Euskadiko 15-29 urteko gazteek, 2025ean, 5G teknologia biztanleria kontrolatzeko konspirazio global baten parte dela dion baieztapenarekin duten adostasun-maila, sexuaren arabera (%)



Aztertutako hiru adin-taldeetako gizon eta emakume gazte gehienek 5G teknologia biztanleria kontrolatzeko konspirazio global baten parte izatearekin ados ez daudela adierazi duten arren, azpimarratu behar da 15 eta 19 urte bitarteko kolektiboa dela ideia horrekin adostasun-maila handiena erakusten duena, batez ere adin horretako gizonetakoak. Adin horretako emakumeen ehunekoa zertxobait txikiagoa da, baina egia da 20 urtetik beherako lau emakumetik batek nahiago duela galderari ez erantzun. Nolanahi ere, 15 eta 19 urte bitartekoen arteko adostasun-portzentaje handiagoek iradokitzen dute konspirazioei buruzko mezuek eragin handiagoa izan dezaketela adin-segmentu gazteenetan.

3.18. taula.

Euskadiko emakume eta gizon gazteek, 2025ean, 5G teknologia biztanleria kontrolatzeko konspirazio global baten parte dela dioen baieztapenarekin duten adostasun-maila, adin-taldeen arabera (%)

Zein neurritan zaude ados edo kontra honako baieztapen hauetako bakoitzarekin?							
(% bertikalak)		Emakumeak			Gizonak		
		15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
5G teknologia biztanleria kontrolatzeko konspirazio global baten parte da	Ados	17,9	11,9	13,7	21,2	8,5	11,1
	Kontra	57,6	69,0	72,3	66,8	84,7	82,1
	Ez du erantzun	24,5	19,1	14,0	12,0	6,8	6,8
GUZTIRA		100	100	100	100	100	100

Gu kontrolatzeko konspirazioei buruzko edukien eraginpean dauden gazteen adostasun-ehunekoa zertxobait handiagoa da, 5G teknologia biztanleria kontrolatzeko konspirazio global baten parte delako ideiarri dagokionez.

3.19. taula.

Euskadiko gazteek, 2025ean, 5G teknologia biztanleria kontrolatzeko konspirazio global baten parte dela dioen baieztapenarekin duten adostasun-maila, sare sozialetan gutxienez astean behin herritarrek kontrolatzeko konspirazioei buruzko edukiak ikusten ote dituzten arabera (%)

Zein neurritan zaude ados edo kontra honako baieztapen hauetako bakoitzarekin?			
(% bertikalak)		Gu kontrolatzeko konspirazioei buruzko edukiak ikusi ohi ditu	
		Bai	Ez
5G teknologia biztanleria kontrolatzeko konspirazio global baten parte da	Ados	18,1	11,3
	Kontra	71,3	75,2
	Ez du erantzun	10,5	13,5
GUZTIRA		100	100

4. INTERNETEN BESTE ERABILERA BATZUK



Hamar gaztetik zortzik adimen artifizial sortzaileak, txatbotak edo elkarrizketa robotak erabili dituzte inkesta egin aurreko hilabeteetan. Gizonen herenek baino gehiagok eduki sexualeko plataforma edo aplikazio digitalak erabili dituzte.

Azken atal honetan, aztertuko dugu gazteek zein neurritan erabiltzen duten Internet duela urte batzuk pentsaezinak ziren helburuetarako. Gaur egun, aurrerapen teknologikoek aukera ematen dute erabilera berri horiek gauzatzeko eta jarraian ikusiko dugu zenbat gaztek baliatzen dituzten aukera horiek. Horretarako, Interneten bost erabilera-mota proposatu zaizkie gazteei, eta azken hilabeteetan egin ote duten galdetu zaie.

Gazteen % 81,5ek adierazi du aurreko hilabeteetan adimen artifizial sortzaileak (ChatGPT, Google Bard, DALL-E, Midjourney, etab.), txatbotak edo elkarrizketa-robotak erabili dituela.

Erdiek baino gutxiagok (% 43,8k, hain zuzen ere) erabili dute Internet *online* higiezinaren plataformak edo agentziak kontsultatzeko (hala nola, Idealista, Fotocasa eta abar).


% 22,2 eduki sexualeko plataforma edo aplikazio digitaletara sartu da azken hilabeteetan (adibidez, Onlyfans, YouPorn eta abar).

Dezente gutxiagok, % 8,4k mikro ordainketak egin dituzte bideo-jokoetan pertsonaien itxura aldatzeko *skinsak* lortzeko, *loot boxesak* (ezusteko harrapakina duten kaxak) edo abantaila zuzenak (*pay-to-win* deitzen dena) lortzeko, besteak beste.

Eta % 4,3k soilik adierazi du aurreko hilabeteetan diru-gastua-dakarten *online* apustuak egin dituela edo *online* kasinoetan jokatu duela.

4.1. grafikoa.

Aurreko hilabeteetan proposatutako Interneten erabilera-mota bakoitza gauzatu duten Euskadiko 15-29 urteko gazteen ehunekoa (%)




Sexuaren eta adinaren araberako aldeak oso nabarmenak dira proposatutako erabilera batzuen kasuan.

Gizonak emakumeak baino gehiago sartzen dira eduki sexualeko plataforma edo aplikazio digitaletan, diru-gastua dakarten *online* apustu gehiago egiten dituzte bai eta kasino birtualetan ere emakumeek baino gehiago jokatzen dute; era berean, mikro ordainketa gehiago egiten dituzte bideo-jokoetan, gizonak emakumeek baino gehiago jokatzen dutelako bideo-jokoetan. Ez dago alderik emakume eta gizon gazteen artean adimen artifizialen erabilerari edo higiezinaren plataformen kontsultari dagokienez.

4.2. grafikoa.

Aurreko hilabetearen proposatutako Interneten erabilera-mota bakoitza gauzatu duten Euskadiko gazteen ehunekoa, sexuaren arabera (%)



Adinaren araberako aldeak ere nabariak dira.

Adimen artifizial sortzaileen, txatboten edo elkarrizketa-roboten erabilera zabalduegia dago 25 urtetik beherakoek artean 25 eta 29 urte bitartekoek artean baino. Nolanahi ere, kontuan izan behar da 25 urtetik beherako pertsona gehienak ikasleak direla, eta ikasleek adimen artifizialak gehiago erabiltzen dituztela lanean ari direnek baino (% 87,3 eta % 74,7, hurrenez hurren).

Zenbat eta nagusiago izan orduan eta gehiago kontsultatzen dira *online* higiezinaren plataformak edo agentziak; izan ere, 50 puntuko aldea dago adin-talde gazteenaren eta zaharrenaren artean. Logikoa da hori, azken adin-talde horrek emantzipatzeko gogo handiagoa duelako.


20-29 urteko pertsonak 20 urtetik beherakoak baino gehiago sartzen dira eduki sexualeko plataforma edo aplikazio digitaletan. Aurreko hilean plataforma horietan sartu direla dioten 20-29 urteko gazteen ehunekoak bikoiztu egiten du 15-19 urteko gazteen ehunekoa.

Gauza bera gertatzen da, portzentaje askoz txikiagoetan bada ere, *online* apustuekin. Dirua *online* egiten diren apustuetan edo *online* dauden kasinoetan gastatu duten 20-29 urtekoek ehunekoak bikoiztu egiten du 15-19 urtekoena.

Bideo-jokoetan mikro ordainketak egin dituzten gazteen ehunekoak, aldiz, gora egiten du adinean behera egin ahala.

4.3. grafikoa.

Aurreko hilabetean proposatutako Interneten erabilera-mota bakoitza gauzatu duten Euskadiko gazteen ehunekoa, adin-taldearen arabera (%)



Sexua eta adina gurutzatzeak aukera ematen du zehatzago zehazteko zein kolektibok gauzatzen dituzten gehien proposatutako Interneten erabilera motak.

Adimen artifizial sortzaileen erabilera antzekoa da emakumeen eta gizonen artean 25 urtera arte, eta % 80tik gorakoa da kasu guztietan; adin horretatik aurrera, erabilera murriztu egiten da, batez ere emakumeen artean, eta 25-29 urteko taldean gehiago dira aurreko hilabetean erabili dituztela dioten gizonak, emakumeak baino.

Online higiezinaren agentzien kontsultek gora egiten dute adinarekin batera, bai emakumeen artean, bai gizonen artean. Eta 25 urtera arte gizonen eta emakumeen ehunekoak antzekoak badira ere, 25 eta 29 urte bitartean emakumeek gizonak baino zertxobait gehiago kontsultatzen dituzte horrelako agentziak. Horrek nolabaiteko lotura izan dezake emakumeen emantzipazio goiztiarragoarekin; emantzipatzeak aldeztu aurretik etxebizitza bilatzea eskatzen baitu, eta, beraz, kontsulta gehiago dakartza higiezinaren agentzietan, bulego fisikoetan zein agentzia birtualetan.

Eduki sexuala duten plataforma edo aplikazio digitalarako sarbidea handitu egiten da 20 urtetik aurrera, bai emakumeen artean, bai gizonen artean, baina batzuen eta besteen ehunekoen arteko aldea nabarmena da, 20-29 urteko gizonen artean % 40 baino gehiago sartzen baitira horrelako plataforma edo aplikazioetan.

Bideo-jokoetako mikro ordainketak ohikoagoak dira gizonen adinak behera egin ahala, eta 15-19 urteko gizonen % 16,9k aitortu du aurreko hilabetean egin dituela. Emakumeen artean ez dago

alderik adinaren arabera; izan ere, ehunekoak oso txikiak dira kasu guztietan (% 2 eta % 3 artean).

Online apustuei dagokienez, aurreko hilean apustu horiek egin izana gazte gutxik aitortu arren, gizonen eta emakumeen arteko aldeak nabarmenak dira hiru adin-taldeetan. Gainera, gizonen artean, ehuneko handiena 20-24 urtekoei dagokie; emakumeen artean, berriz, 25-29 urtekoei.

4.1. taula.

Aurreko hilabetean proposatutako Interneten erabilera-mota bakoitza gauzatu duten Euskadiko emakume eta gizon gazteen ehunekoa, adin-taldeen arabera (%)

Azken hilabetean erabili duzu Internet honako ekintza hauek gauzatzeko?						
(Baiezko erantzunen %)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Adimen artifizial sortzaileak (ChatGPT, Google Bard, DALL-E, Midjourney...), txatbotak edo elkarrizketa-robotak erabili	86,1	83,8	71,2	84,9	83,4	78,7
<i>Online</i> higiezinaren plataformak edo agentziak kontsultatu (esaterako, Idealista, Fotocasa eta abar)	17,1	47,3	71,2	19,1	45,8	65,7
Eduki sexuarekiko plataforma edo aplikazio digitaletara sartu (adibidez, Onlyfans, YouPorn eta abar)	2,6	8,2	10,5	22,6	43,2	44,7
Bideo-jokoetan mikropagoak egin <i>skins</i> , <i>loot boxes</i> ... edo abantaila zuzenak (<i>pay-to-win</i>) lortzeko	2,9	2,5	2,2	16,9	13,8	10,7
Diru-gastua dakarten apustuak egin edo <i>online</i> kasinoetan jokatu	0,4	0,4	3,3	3,7	10,5	7,6

5. SARE SOZIALEN ERABILERAREN ONDORIOEI BURUZKO IRITZIAK




Gazte gehienek uste dute sare sozialek harreman sozialak azalekoagoak izatea eragin dutela, haien erabilerak isolamendu handiagoa eragiten duela, ikasketetako eta laneko errendimenduari kalte egiten diotela eta osasun mentalean eragin negatiboa dutela.

Gazteek sare sozialen erabilerari buruz dituzten iritziak neurtzeko, zenbait baieztapen planteatu zaizkie, eta haietako bakoitzarekiko adostasun-maila adierazteko eskatu zaie. Jarraian, planteatutako baieztapenekiko adostasun-mailaren arabera banaketa aurkezten da.

5.1. grafikoa.

Euskadiko 15-29 urteko gazteen banaketa 2025ean, sare sozialen erabilerari buruz planteatutako ideia bakoitzarekin duten adostasun-mailaren arabera (%)



Gazteen % 80 baino gehiago oso edo nahiko ados dago Internetek eta sare sozialek harreman sozialak azalekoagoak izatea eragin izanarekin (% 85,2, hain zuzen ere), sare sozialen erabilerak ikasketa- edo lan-errendimenduan eragin negatiboa izatearekin (% 81,0), bai eta sare sozialen erabilerak osasun mentalean eragin negatiboa izatearekin ere (% 80,8).

Hamar gaztetik zazpi oso edo nahiko ados daude Interneten eta sare sozialen erabilerak gehiago isolatzen zaituelako ideiarekin (% 71,2), eta gazteen erdia inguru (% 51,2) ados dago sare sozialek lagunak egitea erraztu dutelako ideiarekin.

Gutxiengoa dira sare sozialetan edozein arazoren aurrean babes emozionala aurkitzea erraza delako ideiarekin ados dauden gazteak (% 33,8), bai eta sare sozialek izan ditzaketen arriskuak asko puzten direlako ideiarekin ados daudenak ere (% 25,5).

Sexuaren arabera, badira nabarmentzea merezi duten desberdintasun batzuk.


Emakume gazteek gizon gazteek baino adostasun-maila handiagoa adierazi dute sare sozialak erabiltzearen ondorio negatiboak dagokienez.

Emakumeek gizonak baino neurri handiagoan uste dute sare sozialek harreman sozialak azalekoago bihurtu dituztela, sare sozialen erabilerak osasun mentalari eta laneko edo ikasketetako errendimenduari kalte egiten diela, eta Internet eta sare sozialak erabiltzeak gehiago isolatzen zaituela.

Gizonek, berriz, emakumeek baino gehiago pentsatzen dute sare sozialek izan ditzaketen arriskuei buruz gehiegi esajeratzen direla, eta emakumeek baino neurri handiagoan pentsatzen dute sare sozialek lagunak egitea erraztu dutela.

5.2. grafikoa.


Sare sozialen erabilerari buruz planteatutako ideia bakoitzarekin oso edo nahiko ados dauden gazteen ehunekoa, 2025ean, sexuaren arabera (%)



Adinak gora egin ahala, handitu egiten da sare sozialek izan ditzaketen ondorio negatiboak buruzko adostasun-maila (isolamendua, osasun mentalaren gaineko ondorio negatiboak edo azaleko gizarte-harremanak), eta, aldiz, murriztu egiten da onurekiko adostasuna, hala nola lagunak egiten laguntzen duela edo arazoen aurrean babes emozionala aurkitzen laguntzen duela. Adinean aurrera egin ahala, behera egiten du sare sozialek eragin ditzaketen arriskuak puzten ari direla uste duten gazteen ehunekoak ere.

5.3. grafikoa.

Sare sozialen erabilerari buruz planteatutako ideia bakoitzarekin oso edo nahiko ados dauden gazteen ehunekoa, 2025ean, adin-taldearen arabera (%)



Jarraian azaltzen da emakumeek eta gizonek baieztapen bakoitzaren kasuan duten adostasun-maila. Adin-talde bakoitzaren arabera ere aurkezten da adostasun-maila.

Datuetan ikus daitekeenez, talde bakar batean ere ez dira gehiengoa izatera iristen baieztapen horiekin oso ados dauden gazteak.

5.1. taula.

Euskadiko 15-29 urteko gazteek 2025ean, sare sozialen erabilerari buruz planteatutako ideia bakoitzarekin duten adostasun-maila, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

Adierazi zein neurritan zauden ados baieztapen hauetako bakoitzarekin							
(% bertikalak)		Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
			Emaku-meak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Internet eta sare sozialek harreman sozialak azalekoagoak edo superfizialagoak izatea eragin dute	Oso ados	39,5	42,0	37,5	35,3	41,2	42,2
	Nahiko ados	45,7	46,1	45,1	45,2	44,3	47,8
	Ez oso ados	10,9	9,0	12,6	13,0	11,7	7,7
	Batere ados ez	2,8	1,4	4,1	4,7	1,9	1,7
	Ez du erantzun	1,1	1,5	0,7	1,7	1,0	0,6
Sare sozialen erabilerak eragin negatiboa du ikasketa- edo lan-errendimenduan	Oso ados	37,0	38,8	35,6	37,3	34,7	39,1
	Nahiko ados	44,0	43,9	44,0	44,2	44,2	43,7
	Ez oso ados	16,1	14,4	17,5	15,1	18,9	14,3
	Batere ados ez	2,2	1,8	2,5	2,5	1,8	2,2
	Ez du erantzun	0,7	1,1	0,3	1,0	0,4	0,7
Sare sozialen erabilerak eragin negatiboa du osasun mentalean	Oso ados	34,7	35,3	34,1	28,2	36,8	39,4
	Nahiko ados	46,1	49,1	43,4	47,9	45,7	44,6
	Ez oso ados	16,5	13,0	19,7	20,6	14,6	14,0
	Batere ados ez	1,6	1,5	1,7	1,9	1,9	1,0
	Ez du erantzun	1,1	1,1	1,2	1,5	0,9	1,0
Internet eta sare sozialak erabiliz gehiago isolatzen zara	Oso ados	31,4	30,6	32,1	30,8	30,7	32,7
	Nahiko ados	39,8	43,5	36,3	37,4	40,6	41,5
	Ez oso ados	24,1	22,2	26,0	25,8	25,5	20,8
	Batere ados ez	4,0	2,9	5,0	5,4	2,8	3,9
	Ez du erantzun	0,7	0,9	0,6	0,7	0,3	1,1
Sare sozialei esker errazagoa da lagunak egitea	Oso ados	10,3	9,0	11,4	12,9	9,5	8,2
	Nahiko ados	40,9	39,7	42,0	43,7	43,4	35,4
	Ez oso ados	38,3	41,0	36,0	30,9	39,4	45,2
	Batere ados ez	9,8	9,4	10,1	11,6	7,0	10,8
	Ez du erantzun	0,7	0,9	0,5	1,0	0,7	0,4
Sare sozialek izan ditzaketen arriskuak asko puzten dira, esajeratzen dira	Oso ados	7,1	5,7	8,5	8,9	6,0	6,4
	Nahiko ados	18,4	13,5	23,0	21,3	18,8	14,8
	Ez oso ados	43,0	44,9	41,1	41,6	46,3	41,2
	Batere ados ez	30,6	34,8	26,9	27,5	28,3	36,4
	Ez du erantzun	0,8	1,2	0,4	0,7	0,5	1,1
Sare sozialetan erraza da edozein arazoren aurrean babes emozionala aurkitzea	Oso ados	4,9	5,2	4,5	4,9	5,1	4,7
	Nahiko ados	28,9	27,7	29,6	32,0	27,4	27,0
	Ez oso ados	47,3	48,6	46,3	45,2	48,3	48,4
	Batere ados ez	16,9	16,3	17,6	16,2	16,6	17,9
	Ez du erantzun	2,1	2,1	2,1	1,6	2,6	2,1
GUZTIRA		100	100	100	100	100	100

Sexua eta adina gurutzatzean, aurretik aipatutakoa baieztatzen da. Adinak gora egin ahala, bai gizonen artean, bai emakumeen artean, behera egiten du sare sozialekin lagunak egitea errazagoa dela edo sare sozialek izan ditzaketen arriskuak asko puzten direla dioten ehunekoak. Hala ere, bi baieztapen horiekin oso edo nahiko ados dauden gizonen ehunekoak handiagoak dira emakumeei dagozkienak baino, hiru adin-taldeetan. Sare sozialetan edozein arazoren aurrean babes emozionala aurkitzea erraza ote den galdetuta, lehen ikusi dugun

moduan, adinean aurrera egin ahala akordioa jaisten da baina beherakada hori nabarmenagoa da emakumeen artean gizonen artean baino.

Sare sozialekin gehiago isolatzen zarelako ideiak gora egiten du emakumeen adinak aurrera egin ahala; gizonen artean alde txikia dago hiru adin-taldeen artean.

5.2. taula.

Euskadiko emakume eta gizon gazteek, 2025ean, sare sozialen erabilerari buruz planteatutako ideia bakoitzarekin duten adostasun-maila, adin-taldeen arabera (%)

Adierazi zein neurritan zauden ados baieztapen hauetako bakoitzarekin							
(% bertikalak)		Emakumeak			Gizonak		
		15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Internet eta sare sozialek harreman sozialak azalekoagoak edo superfizialagoak izatea eragin dute	Oso ados	42,2	39,5	44,2	29,3	43,2	40,5
	Nahiko ados	42,4	48,3	47,8	47,4	40,4	47,4
	Ez oso ados	11,0	9,7	6,1	15,0	13,2	9,4
	Batere ados ez	1,9	0,6	1,6	7,4	2,9	1,8
	Ez du erantzun	2,4	1,8	0,3	1,0	0,2	0,8
Sare sozialen erabilerak eragin negatiboa du ikasketa- edo lan-errendimenduan	Oso ados	40,4	34,3	41,7	34,8	35,3	36,7
	Nahiko ados	40,6	47,8	43,6	47,3	40,8	43,9
	Ez oso ados	14,8	15,8	12,5	15,1	21,6	15,9
	Batere ados ez	2,7	1,2	1,4	2,3	2,4	2,9
	Ez du erantzun	1,6	0,9	0,8	0,5	0,0	0,6
Sare sozialen erabilerak eragin negatiboa du osasun mentalean	Oso ados	25,9	39,6	40,9	30,2	34,4	37,9
	Nahiko ados	53,2	47,6	46,2	42,9	44,3	42,9
	Ez oso ados	16,1	10,9	11,8	24,9	17,4	16,4
	Batere ados ez	3,1	0,9	0,6	0,7	2,9	1,4
	Ez du erantzun	1,7	1,0	0,5	1,3	0,9	1,4
Internet eta sare sozialek erabiliz gehiago isolatzen zara	Oso ados	29,1	26,8	36,0	31,9	34,5	29,8
	Nahiko ados	39,6	48,2	42,8	35,7	33,5	40,0
	Ez oso ados	26,5	22,1	17,6	25,0	28,9	23,9
	Batere ados ez	3,2	2,1	3,3	7,4	3,0	4,5
	Ez du erantzun	1,6	0,7	0,4	0,0	0,0	1,8
Sare sozialei esker errazagoa da lagunak egitea	Oso ados	10,9	9,9	5,9	14,8	8,7	10,5
	Nahiko ados	43,7	42,0	33,0	43,7	44,8	37,1
	Ez oso ados	33,0	42,6	48,1	29,2	36,6	42,7
	Batere ados ez	11,0	4,4	12,9	11,5	9,5	9,1
	Ez du erantzun	1,2	1,1	0,2	0,7	0,4	0,5
Sare sozialek izan ditzaketen arriskuak asko puzten dira, esajeratzen dira	Oso ados	6,4	4,8	5,7	11,2	6,9	7,2
	Nahiko ados	15,3	14,8	10,1	26,6	22,8	19,3
	Ez oso ados	47,3	45,2	42,1	36,4	47,1	40,0
	Batere ados ez	30,0	34,4	40,5	25,4	23,0	32,9
	Ez du erantzun	1,0	0,9	1,6	0,5	0,3	0,6
Sare sozialetan erraza da edozein arazoren aurrean babes emozionala aurkitzea	Oso ados	6,6	4,8	4,2	3,4	5,1	5,1
	Nahiko ados	30,6	27,7	24,7	33,4	26,7	28,4
	Ez oso ados	40,9	53,2	52,2	49,0	44,3	45,3
	Batere ados ez	20,2	11,2	17,5	12,7	21,7	18,5
	Ez du erantzun	1,7	3,1	1,4	1,5	2,1	2,7
GUZTIRA		100	100	100	100	100	100

Bestalde, gizonen eta emakumeen adinak gora egin ahala, handitu egiten da sare sozialekin harreman sozialak azalekoagoak izaten direla eta osasun mentalean eragin negatiboa dutela uste dutenen ehunekoa. Bi baieztapen horiekin ados dauden emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da hiru adin-taldeetan.

Jarraian, elkarrizketatutako gazteek berez eman dituzten sare sozialen erabilerari buruzko zenbait iruzkin aurkezten dira. Horietan alderdi positiboak eta negatiboak nabarmentzen dira, sare sozialak eta Internetek eskaintzen dituen tresnak erabiltzerakoan kontuz ibiltzeko beharra azpimarratzen da, arriskuez ohartarazten da eta erregulazio eta kontrol handiagoa eskatzen da, bereziki adingabeen kasuan.

“Es una herramienta muy útil pero que a su vez tiene muchos riesgos.” (Emakumea, 25 urtekoa)

“Creo que el uso de Internet y/o las redes sociales tienen tanto cosas buenas como malas. A pesar de que es una fuente de información muy nutritiva, hay mucha gente que lo utiliza para crear bulos, estafar o dañar a la gente” (Emakumea, 23 urtekoa)

“Son las dos caras de una misma moneda. Pueden ser super positivas, emancipadoras, reflexivas, interesantes, pero, por otro lado, esconden caras tremendamente preocupantes: contenidos sexuales, mensajes de odio, acoso, suplantación de identidades y todas las discriminaciones posibles. Son herramientas, pero a su vez son demonios. El cómo las utilizamos y enseñamos a utilizarlas es la clave.” (Emakumea, 29 urtekoa)

“Estoy de acuerdo con que las redes sociales son peligrosas, sobre todo en la infancia y adolescencia, pero también creo que personas que se sienten solas pueden encontrar un refugio en ellas, que si se usan bien pueden ser una nueva forma de informar a la juventud que ya no ve el telediario ni lee el periódico... El problema en sí no son las redes sino el uso que se hace de ellas.” (Emakumea, 29 urtekoa)

“Sare sozialek aukera bikainak eskaintzen dituzte harremanak mantentzeko eta informazioa partekatzeko, baina badituzte arriskuak ere. Pribatutasunaren galera, informazio faltsua eta ziberjazarpena dira gehien aipatzen diren arriskueta batzuk. Horregatik, komeni da beti kontuz ibiltzea, pribatutasun-ezarpenak egokitzea eta argitaratzen dugunarekin arduratsu jokatzeko.” (Emakumea, 18 urtekoa)

“Es necesaria mucha más regulación.” (Gizona, 27 urtekoa)

“Una regulación del uso de las redes sociales es esencial para favorecer una infancia y adolescencia feliz y saludable.” (Emakumea, 27 urtekoa)

“El uso de redes sociales es algo que yo misma estoy intentando limitar ya que me genera mucha ansiedad entrar a Instagram y ver que no soy capaz de salir cuando me lo propongo y me hace perder tiempo que podría emplear en mis hobbies o en el descanso. También es obvio que la adicción a estas plataformas es cada vez mayor y desde una edad muy temprana y habría que limitarlo de alguna manera.” (Emakumea, 26 urtekoa)

“Nik uste askotan aurretik zeuden arazoak areagotzen dituela, ez hainbeste sortu. Gizarteak tresnak eman behar ditu erabilerara ona emateko sare sozialei, baina zaila da kontuan izanda Internet oso gauza berria dela eta etengabeko bilakaera duela”. (Emakumea, 27 urtekoa)

“Me preocupa más el tema de la privacidad; creo que no es suficiente, refiriéndome a páginas que vendan tus datos, como número de teléfono...” (Gizona, 25 urtekoa)

“Lo que más me preocupan de las redes sociales son los bots de desinformación de la extrema derecha y los sistemas de estafa piramidal (como pueden ser los cursos, criptos, etc.)” (Emakumea, 28 urtekoa)

“El peligro de las redes sociales es real. Los mensajes que llegan a los más jóvenes hacen mella en su opinión y está mucho en juego (como los derechos de las mujeres). Hay perfiles que directamente deberían ser prohibidos. Las redes sociales son adictivas porque hacen sentir que solo te enteras de las cosas a través de ellas y sin su acceso quedarías aislado de ciertos temas.” (Emakumea, 29 urtekoa)

“Me preocupa mucho que la gente no sea consciente de los límites legales y morales, que usen la imagen de terceros para hacer “memes” o ridiculizar a gente que no sabe que sale expuesta, el acoso y la crítica continuada del aspecto físico. Todo ello unido a la dependencia acaba machacando la salud mental de los consumidores de contenido. Es inevitable compararse o desear lo que otra persona muestra que tiene, aun sabiendo que puede ser artificial, pero los límites son difíciles de ver.” (Emakumea, 23 urtekoa)

“Sare sozialak beste droga bat dira eta gero eta nerabe gehiagok erabiltzen dituztela ikusita, kontzientziario kanpaina gehiago egin beharko liratekeela uste dut, hoiien arrisku eta kalteei buruz jakinarazteko.” (Emakumea, 21 urtekoa)

“Las redes sociales no ayudan nada más que para aislar más a las personas y generar menos solidaridad y respeto.” (Gizona, 28 urtekoa)

“Hay que tener cuidado con ellas, saber con quién hablas y no dar nunca datos personales de más. Creo que al final nos estamos aislando mucho del mundo de nuestro alrededor y acabará afectando a nuestra salud mental. Estaría muy bien saber compaginar los diferentes aspectos de la vida, pero no siempre es fácil hacerlo.” (Emakumea, 24 urtekoa)

“Neurri onean erabiltzen jakin behar dela, hainbatentzat eragin negatiboak izan ditzakeelako.” (Emakumea, 28 urtekoa)

“Hay que tener mucho cuidado con la gente que se hacen cuentas falsas para hacerte daño física y mentalmente. Por eso está bien que se verifique que sea verdadera la cuenta.” (Emakumea, 25 urtekoa)

“No podemos demonizar las redes sociales, ahora mismo vivimos rodeados de Internet y tecnología, pero dar unas pautas a los más jóvenes que comienzan a trastear con ellas es importante” (Emakumea, 21 urtekoa)

“Creo que se debería concienciar a la gente sobre las ventajas y desventajas de las redes sociales desde jóvenes y con frecuencia. Porque pueden ser una gran herramienta, tanto para el acoso y la difamación (es importante saber las consecuencias de publicar un mensaje de odio), como para encontrar nuevas oportunidades de estudio, trabajo o socialización.” (Emakumea, 23 urtekoa)

“Creo que nuestra generación, y aún más las que vienen detrás, están muy expuestas a las redes sociales. Esto tiene una parte positiva: puedes recibir información y noticias de

cualquier parte del mundo en cuestión de segundos. Sin embargo, también me parece algo muy peligroso. Es imprescindible tener un pensamiento crítico y dedicar tiempo a contrastar la información para poder distinguir lo real de las *fake news* o del llamado *rage bait*. Por desgracia, somos una generación bastante acomodada, que ha crecido con Google, ChatGPT y herramientas similares, y que no está acostumbrada a profundizar. Eso nos hace, en muchos casos, muy volubles y fácilmente manipulables. También creo que somos una generación bastante desconectada del mundo real. Cada vez es menos común hablar cara a cara, quedar en la calle o simplemente relacionarse fuera del entorno digital, algo que antes era mucho más habitual. Lo noto especialmente en gente de mi edad o más joven: nos cuesta mucho mantener relaciones sociales fuera de las redes.” (Emakumea, 28 urtekoa)

“Creo que son una vía de escape para mucha gente con problemas de salud mental. Tienden a ser una fuente de entretenimiento y distracción muy potente y eso atrae mucho a quien está solo.” (Gizona, 25 urtekoa)

“El uso de Internet y redes sociales también es un apoyo positivo para personas con dificultades en las relaciones sociales (soy autista).” (Emakumea, 28 urtekoa)

“En mi opinión, las redes sociales e Internet en algunas ocasiones son muy beneficiosas, laboralmente (obtención de recursos, contacto con profesionales del sector) y personalmente (que estés pasando un mal momento y encuentres tranquilidad en ese espacio o tener acceso a contenidos de psicología que te ayuden)”. (Emakumea, 23 urtekoa)

“En general se exagera su efecto negativo. Creo que proporcionan un espacio de libertad ante el creciente cercenamiento de las libertades por parte de los gobiernos europeos.” (Gizona, 29 urtekoa)

EMAITZA NABARMENENAK

Sare sozialen erabilera oso hedatuta dago Euskadiko gazteen artean, beste toki batzuetako gazteen artean dagoen moduan. Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko hamar pertsonatik zazpi hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen dituzte egunero, bat-bateko mezularitzako aplikazioak kontuan hartu gabe (% 71,7k).

Gazteek egunero gehien erabiltzen dituzten sare sozialak musika entzutekoak (hala nola, Spotify, etab.) eta Instagram dira. Izan ere, sare sozial bakarra aukeratu beharko balute, **Instagram** izango litzateke aukeratuena.

Gaztelania da sare sozialetan gehien erabiltzen den hizkuntza, eta, atzetik, ingelesa; **euskararen erabilerak gora egin du azken urteotan** eta 2025ean, gazteen % 43,6k dio euskara erabiltzen duela sare sozialetan. Gipuzkoan gazte gehienek erabiltzen dute euskara.

Hamar gaztetik seik influencer, youtuber edo gamer bati jarraitzen ohi diote (% 61,1ek); neskek mutilek baino gehiago.

Sare sozialetan aurki daitezkeen edukien artean, gizon gazteei kirola interesatzen zaie gehien, eta, ondoren, bideo-jokoak; emakumeei, berriz, estilismoekin (moda, makillajea, dekorazioa...), bidaiekin eta bizimoduarekin, aisialdiarekin eta ongizatearekin lotutako edukiak.

Gazte gutxik sortzen dituzte edukiak Interneten, % 7,4k baino ez. Gizonek bideo-jokoekin lotutako eduki gehiago sortzen dituzte, eta emakumeek artearekin eta kulturarekin (zinema, musika, literatura...) edo bizimoduarekin, aisialdiarekin eta ongizatearekin lotutako edukiak.

Gazte gehienek **profil pribatuak** dituzte sare sozialetan, hau da, profil eta eduki guztiak mugatuta dituzte (% 72,7k). Emakumeek gizonek baino neurri handiagoan babesten dute beren intimitatea, eta 20 urtetik beherako pertsonak ere murriztaileagoak dira adin hori gainditzen dutenak baino.

Izan ere, **sare sozialen erabilerari dagokionez, gazteen kezka nagusia da informazio edo irudi konprometituak zabaltzea haien baimenik gabe**. Internet eta sare sozialak erabiltzean, gazteei kezka gehien sortzen dieten hiru egoerei buruz galdetzean (proposatutako zerrenda batetik abiatuta), hiru gaztetik bik (% 66,6k) aipatu dute beren informazio pertsonalaren hedapen hori. Bigarren kezka nagusia iruzurrak jasatea izango litzateke (gazteen % 48,7k aipatua), eta hirugarrena *online* identitatea ordeztzea (% 48,1k aipatu baitu hori).

Online sexu-jazarpena jasateak askoz gehiago kezkatzen ditu emakumeak gizonak baino; diru-gastua dakarten *online* jokoetara eta apustueta lotzeak, berriz, gehiago kezkatzen ditu gizonak emakumeak baino.

Bost gaztetik bat noizbait jazarria sentitu da sare sozialetan (% 21,6); emakumeek gizonek baino gehiago jasan dute jazarpena (% 26,5ek eta % 16,9k, hurrenez hurren). Emakume gazteen % 20,3k dio sexu-jazarpeneko kasuren bat bizi izan duela (gizonen artean, aldiz, % 9,2k), eta emakumeen % 18,4k dio jazarpen matxista edo misoginoa jasan duela (gizonen artean % 4,2k).

Bestalde, azken urtean **Interneten edo sare sozialetan bizi izandako esperientzia negatiboak buruz** galdetuta, gazteen % 31,7k esan dute mezu, argazki edo bideo erotikoak edo sexualak jaso dituztela beren baimenik gabe (emakumeek gizonek baino askoz gehiago, % 38,3k eta % 25,7k,

hurrenez hurren). Gainera, gazteen % 24,7k dio iruzurren bat jasan duela, eta % 21,0k iraindu egin dutela sare sozialetan bere fisikoagatik edo itxuragatik.

Beren baimenik gabe mezu edo irudi erotikoak edo sexualak jaso dituzten pertsonen besteek baino kezka handiagoa agertzen dute *online* sexu-jazarpena jasan dezaketelako. Bestetik, iruzurren bat jasan dutenek besteek baino kezka handiagoa agertzen dute iruzur berriak jasateagatik.

Gazteen % 84,5ek ikusi du nola iraintzen edo umiliatzen duten norbait sare sozialetan. Ehuneko hori hamar puntu baino gehiago igo da 2018tik 2025era.

Sare sozialak gazteen informazio iturri nagusia dira. Gazteen % 74,6k egunero izaten du gaurkotasuneko albisteen berri sare sozialen bidez. Gutxiago dira egunero telebistan (% 38,9) edo *online* prentsan (% 34,8) albisteei buruz informatzen direnak, eta are gutxiago irratiazen (% 13,8), *podcasten* (% 9,2) edo paperezko prentsaren (% 4,5) bidez informatzen direnak.

Sare sozialen artean, Instagram da, berriro ere, gazteek gehien erabiltzen dutena informatzeko. Hamar gaztetik seik (% 60,1ek) egunero jasotzen dute azken albisteen berri sare sozial horren bidez. 20 urtetik beherako emakume gehienek TikTok bidez ere jasotzen dute informazioa egunero (% 62,9k).

Sare sozialetan ohikoa da albiste faltsuen eraginpean egotea. Lau gaztetik hiruk (% 77,6k) esan dute azken astean desinformazioaren edo *fake newsen* eraginpean egon direla. Eta % 12,8k aitortu du ez dakiela ikusi edo jaso duen informazioaren artean albiste faltsuren bat zegoen.

Gazteen % 13,4 baino ez dago oso seguru albiste faltsuak identifikatzen dakiela ikusten dituenen. Beste % 46,5 seguru samar sentitzen da. Baina hiru gaztetik batek (% 34,0k) aitortzen du ez dela seguru sentitzen *fake newsak* identifikatzeko gai dela ikusten dituenen. Gizonak emakumeak baino seguruago sentitzen dira *fake newsak* identifikatzeko gaitasunaz.

Sare sozialetan erraza da, nahita edo nahi gabe, eduki polemikoetara sartzea. Gazteen % 30,0k dio egunero ikusten dituela immigrazioaren aurkako iruzkinak, % 28,2k egunero ikusten dituela demokraziaren edo erakunde demokratikoen funtzionamenduari egindako kritikak, % 23,5ek egunero ikusten dituela genero-berdintasunerako politiken aurkako iruzkinak edo edukiak, % 18,6k jarrera bortitzak justifikatzeko edukiak, % 13,7k herritarrak kontrolatzeko konspirazioei buruzko edukiak, % 10,0k klima-aldaketa ukatzen duten edukiak, % 7,4k anorexia eta muturreko argaltasuna sustatzen duten edukiak, eta % 2,0k nork bere burua zauritzeko aholkuak.

Gizonek, beren borondatez edo nahi gabe, emakumeek baino neurri handiagoan eskuratzen dituzte eduki-mota horiek guztiak (alderik nabarmenena immigrazioaren aurkako iruzkinetan dago). Salbuespen bakarra anorexia eta muturreko argaltasuna sustatzen duten edukiak dira, emakumeak gizonak baino neurri handiagoan ikusten baitituzte horrelako edukiak sare sozialetan.

Datuen arabera, plataforma digitaletan immigrazioa, genero-berdintasuna, edo demokrazia gobernatzeko modu egoki gisa gaitzesteko edo kritikatzeko mezuak agertzeak edo genero-indarkeria asmakizun ideologikoa dela dioten iruzkinak ikusteak ez du lotura zuzenik eta aurreangarririk jarrera horiekiko atxikimenduekin. Hau da, horrelako eduki gehiago ikusteak ez du esan nahi nahitaez planteamendu horiek gehiago onartu edo barneratu behar direnik.

Gazte gehienek berdintasuna babesten dute eta onartzen dute genero-indarkeria dagoela, baina gizon gazteen heren batek baino gehiagok uste du berdintasuna sustatzeak gizonak diskriminatzen dituela. Alde horretatik, ebidentzietan oinarritutako kontrako kontakizunak (desberdintasunaren benetako inpaktuak, erantzukidetasunaren onurak...) eta berdinen arteko elkarrizketa-guneak beharko lirateke berdintasunari lotutako "galerei" buruzko mitoak eta beldurrak lantzeko. Edonola ere, berdintasun-politiken aurkako edukiak sareetan ikusteak ala ez ikusteak ez du ezberdintasun nabarmenik sortzen horri buruzko iritzietan.

Gazte gehienek immigrazioaren aldeko iritzia ere badituzte, eta sare sozialetan immigrazioaren aurkako mezuak jasotzen dituztela dioten gazteak dira euskal ekonomiak aurrera egin dezan etorkinak beharrezkoak direla gehien defendatzen dutenak.

Gazteriaren gehiengo zabal batek uste du demokrazia dela gobernatzeko modurik onena, eta ia ez dago iritzi desberdintasunik sare sozialetan haren aurkako mezuen eraginpean dauden pertsonen eta demokraziaren edo erakunde demokratikoen funtzionamenduaren aurkako iruzkin kritikorik ikusten ez dutenen artean.

Klima-aldaketa ukatzen duten mezuekiko esposizioaren arabera ere ez dago iritzi desberdintasunik. Gazte gehienek uste dute ez dela aldaketa naturala eta ziklikoa, giza ekintzarekiko independentea, baizik eta gizakion jarduerak eragindako ondorioa.

Konspirazioei buruzko edukien eraginpean daudenek neurri handiagoan diote 5G teknologia biztanleria kontrolatzeko konspirazio global baten parte dela, baina, edonola ere, ideia hori oso gutxi bereganatu dute gazteen artean.

Beraz, ondoriozta dezakegu horrelako eduki eztabaidagarriak ikusteak ez duela ematen eragin zuzen eta adiera bakarrekoa duenik iritzi horiek bereganatzean.

Interneten beste erabilera batzuei buruz ere galdetu da ikerketa honetan. **Hamar gaztetik zortzik (% 81,5ek) baieztatu dute aurreko hilabetearen erabili dituztela adimen artifizial sortzaileak** (ChatGPT, Google Bard, DALL-E, Midjourney...), txatbotak edo elkarrizketa-robotak. Sormenezko adimen artifizialen erabilera nabarmenagoa da 25 urtetik beherakoen artean, horietako gehienak ikasleak baitira eta ikasleek erabiltzen dute gehien.

Gehiengo izatera iritsi gabe, gazteen % 43,8k esan du *online* plataforma edo higiezin agentziak (Idealista, Fotocasa...) kontsultatu dituela azken hilabetearen. Higiezin plataformak horiek kontsultatzen dituzten gazteen ehunekoak gora egiten du adinak aurrera egin ahala, adinez nagusiagoak diren kolektiboek gehiago bilatzen dutelako etxebizitza.

Bestalde, gazteen % 22,2 eduki sexualeko plataforma edo aplikazio digitaletara (Onlyfans, YouPorn...) sartu da azken hilabetearen, % 8,4k mikro ordainketak egin ditu bideo-jokoetan *skinsak*, *loot boxesak* edo abantaila zuzenak (*pay-to-win* deiturikoak) lortzeko, eta % 4,3k soilik adierazi du aurreko hilabetearen diru-gastua dakarten *online* apustuak egin dituela edo *online* kasinoetan jokatu duela. Gizon gazteak emakume gazteak baino askoz gehiago sartu dira sexu-edukiko plataforma edo aplikazio digitaletara (% 36,5 eta % 7,0, hurrenez hurren). Bideo-jokoetan mikro ordainketak egitea ere ohikoagoa da gizonen artean (% 13,9k egin ditu), emakumeen artean baino (% 2,5ek), bai eta *online* apustu gehiago egitea ere (gizonen % 7,2k egin ditu eta emakumeen artean % 1,3k).

Sare sozialen erabileraren ondorioei buruzko iritziei dagokienez, **gazte gehienek uste dute sare sozialek ondorio negatiboak dituztela**, hala nola harreman sozialak azalekoagoak izatea eragin dutela (% 85,2k uste du hori), haien erabilerak eragin negatiboa duela ikasketetako edo laneko errendimenduan (% 81,0), osasun mentalari ere negatiboki eragiten diola (% 80,8), eta Interneten eta sare sozialen erabilerak gehiago isolatzen zaituela (% 71,2). Emakumeek gizonen baino gehiago nabaritzen dituzte gizarte-sareen eragin negatibo horiek, batez ere buru-osasunari lotutakoak.

Internet eta sare sozialak erabiltzearen ondorio positiboak dagokienez, gazteen % 51,2k uste du horiekin errazagoa dela lagunak egitea, eta % 33,8k uste du sare sozialekin erraza dela edozein arazoren aurrean laguntza emozionala aurkitzea. Bi iritzi horiek gehiago partekatzen dituzte gizonen emakumeen baino

Edonola ere, lau gaztetik batek (% 25,5) uste du asko exageratzen dela sare sozialek izan ditzaketen arriskuen inguruan. Gizonen emakumeen baino gehiago uste dute puztu egiten dela sare sozialek izan dezaketen eragin negatiboa.

Gazteen adinak gora egin ahala, eragin negatiboen pertzepzioak gora egiten du, eta ondorio positiboak, behera. Behera egiten du, halaber, sare sozialek ekar ditzaketen arriskuak puztu egiten direla pentsatzen duten gazteen ehunekoak.

Azken batean, Euskadiko gazteek sare sozialak erabiltzeak errealitate konplexua islatzen du, aukerak eta arriskuak elkarrekin bizi baitira. Plataforma horiek komunikazioa, informazioa eskuratzea eta loturak sortzea errazten duten arren, pribatutasunarekin, eduki kaltegarrien eraginpean egotearekin eta osasun mentalean duten eraginarekin lotutako erronkak ere planteatzen dituzte. Egoera horren aurrean, funtsezkoa da erabilera kritikoa eta arduratsua sustatzea, hezkuntza digitala indartzea eta espazio seguruak sortzea, gazteek teknologiaren abantailak aprobetxatu eta eragin negatiboak saihestu ditzaten.

